

DATORRENA

Trumpen paradoxa klimatikoa

AIORA ZABALA > 3

MIREN ETXEZARRETA:

«Pobreak daude aberatsak
daudelako» > 22

2025eko martxoaren 1a | XIX. urtea • 917. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ARRANTZALEAK, KONTRAKO KORRONTEAREKIN, IPARRAREN XERKA

DONIBANE LOHIZUNeko PORTUAN, ITSASOAREN TAUPADAK ARRANTZAREN OFIZIOA ETA ITSASOAREKIKO MAITASUNA ELKARTZEN DITU. EUSKAL HERRIAREN HISTORIA ZIZELKATU DUTE ARRANTZALEEK ERE BAI, BAINA KONTRA DAUKATE KORRONTEA; KLIMA ALDAKETAK, TEKNOLOGIAK, KUOTEK ETA ARAUEK EZ DAKARTE ALDEKO HAIZERIK. > 12

Guillaume FAUVEAU

Arduraduna: Amagoia Mujika Telleria. **Erredakzioa:** Asier Aiestaran Iruretagoiena, Mikel Urdangarin Irastorza.

Argitaratzailea: Astero. **Lege Gordailua:** SS-77/07. **Helbidea:** Portuetxe 23-2a. 20018 Donostia. P.K.: 1099. Tel.: 943 31 69 99 / Faxa: 943 31 69 98. **e-posta:** info@gaur8.info. **Publizitatea:** Euskal Prensa. Tel.: 94 424 72 06.



4



8



17



Pablo Seman, antropologo argentinarra: «Mileik indarrean zegoena zalantzan jarri zuen» 04

Shein eta Temu bezalako plataforma txinatarrei mugak jarri nahi dizkiete mendebaldean 08

Donibane Lohizuneko portuko arrantzaleak, iparraren bila 12

Aezkoako Euskara Hiztegia, dagoena ez galtzeko eta hiztun berrientzat pizgarri izateko 17


Miren Etxezarreta, ekonomialaria: «Azalpen onena eman didana, orain arte, marxismoa da» 22

In fraganti: Beñat Olea 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



28

SINADURAK:

- 03 **Aiora Zabala:** Trumpen paradoxa klimatikoa
- 11 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Sukalde kolektiboak
- 16 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Leire Lareki Sanchez eta Eneko Mendiluze Plaza:** Emozioen adierazpena gorputzean
- 21 **Xabier Izaga:** Ezkio eta Gasteiz Palestina eta Ukrainara begira
- 27 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Eskutik heldu
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Duintasuna
- 30 **Olatz Arbelaiz Gallego, Usue Mori Carrascal eta Ana Zelaia Jauregi:** Emakume zientzialariak hazia ereiten, baita Informatika Fakultatean ere



{ datorrena } **Aiora ZABALA**

Trumpen paradoxa klimatikoa

Klima hitza webgune orotatik kendu dute AEBetako iturri ofizialek. Klima larrialdia-ri buruzko ikerlanak hango gobernuaren finantzaketa galtzeko arriskuan daude. Klima aldaketa gertatzen ari ez denaren irudikeria komunikatu nahi dute ekintza hauek. Planeta laua dela eta bizitzaren eboluzioa gertatu izan ez dela sinesten dutenak badira gaur egun ere, baina ez dira AEBetako presidente bihurtu.

AEBetako presidentearentzat klimak bi esanahi ditu. Biak okerrak. Batetik, klima larrialdia aktibismoa pizten duen gaia da. “Woke” deritzoten kulturaren balore bat gehiago da klima, gizakien berdintasuna eta gizartearen aniztasunaren baloreekin batera. Haren aburuz, kultura hori distrakzioa besterik ez omen da. Hiperaberatsen ondasun pilaketa ahalbidetzeko esplotazioa agerian uzten duen “distrakzioa” da, nire iritziz.

Bestetik, klima aldaketa trantsizio energetikoa bultzatzen duen gertaera da (erregai fosilei uko egin eta energia iturri berriztagarrietara pasatzeko trantsizioa). Klima hitza aipatu gabe, berrikuntza teknologiko, esplotazio eta espekulaziorako aukera da klima. Parada hori aprobetxatu nahi du AEBetako gobernuak. Ez da ahaztu behar espekulatzailerik imobiliariora dela presidentea eta auto saltzailea haren lagun oportunistak. Azkeneko honek auto elektriko asko saldu ditu dirulaguntza publikoei esker, baina hori ez da honakoan hausnartu nahi dudana paradoxa.

Bi esanahi hauek eragiten dutenean dago paradoxa. Klima larrialdiaren kalte sozialei entzungor egin nahi die AEBetako egungo gobernuak. Hala ere, klimaren kontuak irabazi ekonomikoak ekartzen baldin baditu zeharka, horrelako aukerarik ez du galdu nahi. Kanada, Groenlandia, Ukraina... haien baliabide naturalak –mineralak– eskuratu nahi dituela erakutsi du argi.

AEBetako presidenteak ez ditu mineralak bilatzen petrolio eta gas industria bultzatzeko. Hala da, nahiz

eta “drill-baby-drill” narratibak (erregai fosilak ustiatzeko grina adierazten duena) argi erakusten duen industria hori kuttun duela eta askatasun osoa eman nahi diola, planetaren kalterako. Gainerako herrialdeen mineral baliabideak bi prozesu bultzatzeko behar dira: digitalizazioa eta energia trantsizioa. Bi prozesuak geopolitikan puri-purian daude, oinarritzko material batzuk eskasak dira, eta AEBek ez dute lasterketa hauetan atzean gelditu nahi, Txina liderra bihurtzen ari bada ere.

Klima larrialdia onartzea eta ulertzea ez dago AEBetako presidentearen agendan. Bai, ordea, klima larrialdiari aurre egiteko teknologia garapenean dakarten aukera ekonomikoa. AEBetako presidenteak klima hitza

Klima larrialdiaren kalte sozialei entzungor egin nahi die Trumpek. Baina klimaren kontuak irabazi ekonomikoak ekartzen baldin baditu, aukerarik ez du galdu nahi

esplizituki isilarazi nahi duen bitartean, trantsizio energetikoaren berrikuntza teknologikoa serio hartzen ari da. Irabazi ekonomikoak ekarriko dituzten aferetan egon nahi du, eta berdin dio zeinetan. Klima larrialdia nahi gabe onartzen du honela.

AEBetako presidentea oso abila da narratibak moneiatzen, nahiz eta desitxuratutako egiarekin edota gezur zuzenekin eraikiak diren. Distortsio hauei aurre egiteko, Van Der Linden ikerlariak asmatu du irtenbide bat, “desinformazioaren aurkako inokulazioa” deitu dio.

Narratibari so, ez genituzke klimaren bi esanahi oker hauek sinistu behar. Klima larrialdiari aurre egiteko aktibismoa, ikerketa eta politika haren ondorioak sentitzen ari garela eta sentituko ditugulako sortzen den kezka pizten dituzte. Eta energia trantsizioa ez da aberats batzuk gehiago aberasteko aitzakia. •

2012an, Cristina Fernandez Go-bernu peronista-ren aurkako pro-
testen harira, honakoa idatzi
zuen Pablo Seman (Buenos Ai-
res, 1959) antropologoak:
«Azaroaren 28an ‘askatasuna-
ren aldeko fronte zabala’ sor-
tzen da, eta horrekin lehiatu
eta borrokatu beharko da. Ez
dut zalantzarik: subjektu ho-
rrek, gaur egun artikulazio al-
derdikoirik edo elektoralik ez
badu ere, izango du». Bai izan
ere! 12 urteren buruan, “aska-
tasuna” bandera bezala hartu-
ta eta motozerra ikur gisa era-
biliz, Javier Milei Argentinako
presidente bilakatu zen.

Horren arrazoiak aztertze-
ko asmoz, iaz “Mileiren igoera:
Argentinan eskuin libertarioa
eratzeko gakoak” [“El ascenso
de Milei: Claves para entender
la derecha libertaria en Argen-
tina”] liburua argitaratu zuen
Semanek. Euskal Herrian egin
duen egonaldia aprobetxatuz,
berarekin elkartu eta gako ho-
riek landu ditugu.

**Zure ustez, Mileiren fenome-
noa ulertzeko ez zaio baka-
rrik Milei egin duenari erre-
paratu behar. Nola sortu
ziren Milei fenomenoak piztu
eta zabaltzeko baldintzak?**

Kontuan hartuta Milei gastu
publikoa asko murrizteko eta
hainbat herri sektorek eskura-
tutako eskubideak desegiteko
proposamen batekin heldu de-
la Gubernura, gutxienez 50 ur-
te egin behar da atzera ikuste-
ko zenbat ezinegon pilatu
diren, eta, ondorioz, gehien-
goak nolatan egin duen pro-
grama horren alde.

Lehen une bat 1965 da gutxi
gorabehera, 76ko diktadura
militarrarekin larriagotu zena.
Argentinak inoiz konpondu ez

«Estatuaren aurkako kritika Estatuaren deuseztapen bihurtu da»

PABLO SEMAN

ANTROPOLOGOA

Bere ikerketa lerro nagusia

Argentinako herri kultura eta erlijioa

izan badira ere, azken urteetan egoera

sozial eta politikoagoari geroz eta

arreta gehiago eskaini dio. Tartean,

nola ez, Mileiren fenomenoari.

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

zuen dilema ekonomiko bati
egin behar izan zion aurre: in-
portazioak ordezkatu eta bar-
ne merkatua bultzatzeko ere-
du ekonomikoa eraikitzen ari
zen, noiz eta globalizazioa
hasten ari zen garaian.

Gatazka horren konponbi-
dea garai hartako klase domi-
natzaileen aldekoa izan zen.
Horrek langile-sektoreen
desegituraketa ikaragarria
ekarri zuen, eta langabeziara,
informaltasunera eta pobre-
ziara eraman zuen argentina-
rren ehuneko handi bat.

Gero, 1989-91n, krisi-mota
bera agertu zen berriro, jada
eraldatuta zegoen egitura ba-
tekin, eta 75ekoa bezain mo-
du basatian konpondu zen.
Baina oraingoan adostasun
handiagok, neoliberalismoa
ez baitzen iritsi Gubernura
kolpe militar batekin, hautes-
kundeekin baizik, Meneme-
kin. Argentinako ekonomia-
ren birmoldaketa osoa
gauzatu zen: irekiera ekono-
mikoa, pribatizazioak, lan
erregimenaren aldaketa, po-
breziaren zabalpena, infor-
maltasunaren gorakada, zer-
bitzu publikoen erabateko
murrizketa... Erregimen ho-
rrek tentsio ekonomiko eta
sozialak eragin zituen, eta
2001ean lehertu egin ziren.

**Eztanda horren ostean, Nes-
tor Kirchner peronistaren
Gobernua eratu zen. Nolako
izan zen?**

Gobernu post-neoliberalak izan
zen, erreparazioarako asmoak
zituena, baina oso modu mu-
gatu batekin zituena. Bere
lehen sei urteetan nahiko on-
do funtzionatu zuen. Hala ere,
proiektu politiko hori 70eko
hamarkadatik zetozen ekono-
miaren tentsio berdinei aurre
egiten hasi behar izan zen. Ni-
re ustez, adierazpen hiperpro-


gresisten eta gaitasunik ezaga-
tik eta indar-harremanengatik
hain progresista izan ezin
zuen jardun ekonomiko baten
arteko disoziazio batekin.

Orduan, pobrezia, informaltasuna eta aberastasunaren
kontzentrazioa areagotu egin
ziren berriro, baita garai pro-
gresistan ere.

**Horren eskutik, haustura so-
ziala eta haserre ere bai, ezta?**

Hiru une handi horien amaie-
ran, zikloaren ezaugarriak
okerrenetan sakondu zuen
Macriren gobernua barne,
ikusten duzu badela informa-
len masa bat, langile formale-
naren antzekoa edo handiagoa
dena, eta gainera, gazteenak
dira. Horiek kritika bat egiten
diote ekonomiaren funtziona-
menduari, gehiegi esku hartu-
ta ikusten baitute; kritika bat
ekonomia hori kudeatu duen
klase politikoari; eta kritika bat
Estatuari, herritar gehienent-
zat, baina batez ere gazte ho-
rientzat, esperientzia egokirik
ematen ez duen Estatu bat de-
lako, eta motela, eragingabea
eta irtenbideak emateko ez-
gaia iruditzen zaielako. Adibi-
dez, sektore herrikoietan, osa-
sun publikoa badago, baina
ezin dira hain erraz joan berta-
ra, inoiz ez baitago txandarik.

Segurtasun arazoak ere izu-
garriak dira. Izan ere, 50 urte
hauetan hiri handien hazkun-
de eta metropolizazio prozesu
ikaragarria gertatu da. Bertan
langabezia eta informaltasun
handia dago, eta baita krimen
antolatua ere (argitzearen, ez
dago soilik leku herrikoietan
eta krimen antolatuaren buru-
zagiak ez dira sektore herri-
koietakoak). Eta biztanleriaren
zati bat beldurtuta bizi da.
Adibidez, emakumeak Omni-
busa hartzera lagunduta joa-
ten dira, eta jaisten direnean



Argazkiak: Jagoba MANTEROLA | FOKU

senitarteko bat egon behar da zain, beren auzoan bertan eraso egin diezaieketelako.

Gainera, azken 15 urteetan arazo handiak izan dira inflazioarekin. Urteko %25eko oinarriarekin hasi zen, izugarri dena, baina Gobernuak egia ezkutatzaren zuten zifrak aurkezten zituen.

Orduan, azken 15 urteetan, gobernuak arazo berriak sortzen zituen, ez zituen arazo zaharrak konpontzen, eta gainera, konfrontazio politika zalapartatsua zuen, non 'gu ez bada, eskuina da' planteatzen zen, baina gizarteari ez ziztzaion argi geratzen ezkerrek ze abantaila eskaintzen zituen.



Eta hor Milei agertu zen.

Ibilbide hori guztia aztertuz gero, indarrean zegoena zailantzan jarriko lukeen lidergo batentzat prestutasun handia zegoela ikus daiteke. Eta hori izan zen Milei egin zuena: indarrean zegoena zailantzan jartzea.

Analista eta buruzagi politiko guztiek teoria bat zuten, niri beti barregarria iruditzen zitzaidana. Haiek pentsatzen zuten pendulu baten modukoa zela: batean ezkerak irabazten du, bestean eskuinak, haiek suntsitu egiten dute, guk berreraiki... eta uste zuten dena betiko horrela izan zitekeela. Eta nik ikusten nuena

zen gauzak gero eta okerrago geratzen zirela: ez zen pendulu bat, txirrista bat zen, itzultzen ginen bakoitzean hamar pisu beherago geunden.

Zentzu horretan, Milei hauteskundeak irabaziko zituela jabetu nintzen oposizioko hautesleen artean elkarriketak egiten lan egiten nuenean. Aurkarien argudioak Mileiren berberak ziren: haiek ere kritika egiten zuten diru transferentziei buruz, plan sozialei buruz, buruzagitza politikoari buruz, merkatuan ondo moldatzen direnen merituari airtortzarik ez egiteari buruz... orduan, nik esaten nuen: hau xe da hegemonia, kontrako al-

derdiaren boto-emaileek zure argudioak izatea.

Artikulu batean diozunez, Milei ez da soilik amorrua edota antipolitika. «Herri» alternatibo bat sortu du.

Aurreko Gobernuek eta sistema politiko, sozial eta ekonomikoak eskaintzen ez duten guztiarekiko arbuioarekin batera, baieztapen bat dago, askatasunaren ideari ematen zaion esanahiarekin lotuta. Askatasuna merkatu-askatasun gisa ulertzen da, ahaleginaren ordaina bailitzan, zailtasunei aurre egiteko gaitasun bezala, estatua ahulen babesgune bezala ulertzearen kriti-

ka gisa. Hau da, biziraupenaren aldeko borrokan indartsuenen ezarpen bezala ulertzen da askatasuna. Eta askatasunaren ideia horren inguruan hainbat eskaera lotzen dira: klase politikoari, segurtasunari, inflazioari, osasunari... dagozkienak. Baina osasun-eskaera horien bidez ez da aldarrikatzen osasun publikoa, herritarrek osasun-aseguru pribatu bat hartzeko duten gaitasuna baizik. Estatuaren aurkako kritika Estatuaren deuseztapen bihurtu da.

«Gu» horrek karga moral bat ere badu: «Argentinaren onak» osatzen dute.

Politikaren, ekonomiaren eta estatuaren kritika horretan, herri bat osatzen da, komunean zerbait duena. Subjektu horiek argentinaren onak bezala identifikatzen dira, euren hobekuntza ahaleginari lotuta dagoelakoan, eta Estatuaren laguntza behar duena ez delakoan argentinaren ona.

Subjektu horiek hobetzeko duten aukera Estatu bat egon izanarekin lotuta dago. Baina ez da nire egitekoa hemen hori eztabaidatzea. Ez diot hori eztabaidatzeari uzten, baina uste dut beharrezkoa dela haiek gizarte-bizitza nola ulertzen duten aztertzea.

Hor eraldaketa kultural bat gertatu da, eta lehen aipatutako krisi ekonomikoetatik azaleratu diren gizarte-subjektuek presentzia politikoa eta sinbolikoa hartu dute: langabeziaren subjektuek, informaltasunean daudenek, aitortu gabeko inflazioa jasan dutenek... kaltetu guztiek.

Baita gatazkaren kudeaketa agonistikoa kaltetutakoek ere, jendearentzat zuen erantzun bakarra epika gehiago baitzen, mundu guztiak egu-

nean 24 orduz politikoki borrokan egon ahalko balu bezala. Orain, berriz, herritarrei erronka botatzen hasi dira, militantzia kirchneristaren gehiengoarentzat beraiei botoa ematen ez dietenak ergelak edo emozioek erasandakoak baitira. Nik uste dut, progresista eta ezkertiar gisa, ezin dugula onartu gehiengo elektoral baten patologiazioa.

Mileik esaten duena ez ezik, esateko modua aztertzea ere interesgarria da.

Fenomeno mileistaren mui-nean ekonomiaren egoeraren eta buruzagitza politikoaren kritika daude. Eta hori hitzekin esaten da, baina ikonoekin ere esaten da, hitz horiek laburbiltzen dituzten irudiekin. Indar poetikoa ematen diote.

Orduan, motozerra, kanpotik ikusten zutenentzat ulertezina edo barregarria bada ere, euren bozkatzaileentzat, mezu argia izateaz gain, 'doikuntza bat egingo dut' esatea baino indartsuagoa da. Askoz urrunago joatea da.

Mileiren hegemoniaren eraikuntza unea horixe izan zen, hain zuzen ere: kritika irudi horiekin gorpuztea lortu zuen momentua. Borroka kulturala hor izan zen. Borroka kulturala ez da orain, haiek Estatuan daudela, Estatutik irakasten saiatzea; borroka kultural garailea bizitza sozialean egiten da.

Motozerra horri nola egin dakiok aurre?

Gu oso gaizki prestatuta gaude erresistitzeko, ezkerak eta progresismoak utzitako ondare politikoa negargarria delako. Jende horrek uste du ez zuela gezurrik esan eta gezurra esan zuen, ez du militantzia politikoa ulertzen Estatuan ar-

«Azken 15 urteetan, gobernuak arazo berriak sortzen zituen, eta ez zituen arazo zaharrak konpontzen. 'Gu ez bada, eskuina da' planteatzen zen, baina gizarteari ez zitzaion argi geratzen ezkerak ze abantaila eskaintzen zituen»




durarik bete gabe... eta inoiz ez zutela huts egin uste dutenez, ez daude prest gizartearekin eskuz esku hitz egiteko, ezta nondik, zer tresnarekin eta zer figurarekin joan gizarteak esan diezaien uzteko ere.

Orduan, eraginkortasunez eutsi ahal izateko lehen egin beharra iraganeko ideia, errepertorio eta figurak gainditzea da. Hori ezinezkoa da, aurreko etapako beste legatu politikoa agintari burokraten gainegitura bat delako: okerrak dira, baina norabide akastuna inposatzeko gaitasuna dute. Benetan nazka eragiten dute herritarren artean. Ez

dago irudi positiboa negatiboa baino gehiago duen oposizioko buruzagirik.

Axel Kicillof izan daiteke erreferentzia positiboetako bat?

Kicillof niretzat ahobiko figura bat da, aurreko ondare politikoaren zati bat ordezkatzeko duena eta hein batean hura gainditzeko nahia duena. Kicillofek iraganetik jasotzen dituen erasoek erakusten dute ezker hori benetan kanibala dela, beraien artean onena denaren kontra egiten ari direlako, zer eta berritzeko zantzu argiak eman ditzakeen bakarra denean.



«Biziraupenaren aldeko borrokan, indartsuenen ezarpen bezala ulertzen da askatasuna. Eta ideia horren inguruan hainbat eskaera lotzen dira: klase politikoari, segurtasunari, inflazioari, osasunari... dagozkienak»

Etorkizunari begirako alderdi bat badu. Esaten duenaz gain, nolakoa den eta nola egin duen ikusita, itxaropenez gidatzen duen buruzagia izan daiteke. Hala ere, nik uste dut Kicillofek boterera itzultzeko borondatea duen jende multzo bat ere ordezkatzeko duela. Hauek pentsatzen dute politika Estatutik bakarrik egin daitekeela. 2000. urtera arte marjinalak izan ziren, baina azken 20 urteetan boteretik eta Estatutik gertu bizi izan dira, eta azken hauteskundeak laprasteko iragankorra baino ez zirela izan uste dute, laster gaindituko dena.

Nik uste dut jende horri guztiari honakoa ohartarazi behar zaiola: basamortua luzeagoa eta handiagoa izan daiteke eta politika gizarte zibiletik ere egin daiteke. Defentsa lerroak nik nahi nukeena baino askoz atzerago jarrita, bai, baina egin daiteke.

Borroka kultural horretan zeintzuk dira interesgarriak izan daitezkeen ideia, desira edota ezinegonak?

Nik uste dut gaur egun atzeraldi oso handi batean gaudela, eta luze iraun dezakeela. Ez gaude 2015eko egoera berean. Atzeraldian gaude denok eta gai guztiak. Alde horretatik, oso garai

gogorrak datoz. Izan ere, datozen bi urteetan behintzat, emantzipazio-arrazoi batzuen aurkako eraso biziko dugu. Borrokatzeko eta borrokaren bidez eskubideak lortzeko eskubidea ezbaian dago; Mileirengatik, ofizialismoagatik, baina baita mugimendu sozialek eskubide horren kudeaketa oso txarra egin zutelako ere, ez baitziren inongo arazoen kargu egin.

Orduan, bide, errepertorio, figura eta ikono berriak aurkitu behar dira, gizartearen dauden auzi horiek legitimitatearekin bultzatzeko eta artikulatzeko. Edozein kasutan, guk uste baino askoz atzerago daude gu-

re defentsa lerroak. Ondo eutsi ahal izateko, abiapuntua onartu egin behar da, bestela progresismoak erbestean dauden printze errusiarren antza du: garai zaharrak faltan botatzen dituzte, boterean egon izanaren inertzia dute eta berriro boterean egoteko gogoz daude. Baina inertzia eta gogo hutsarekin ez dute arazoa konpontzen.

[Isilune baten ostean] Itxaron, ea irtenbide optimista bat eraiki diezazukedan... bada-goela uste baitut.

Ea ba, aurrera.

Nik uste dut gu egoera baterantz goazela, non uztartuko

baitira krisi ekonomikoa, Gobernuaren borroka kulturalen saiakera setatsuak eta Estatuaren azpiegitura fisikoetan akatsen bat edo beste; izan ere, murrizketa hain handia izango denez, egunen batean argia moztuko da eta ezingo dugu berriro piztu. Hor egongo da zentzu komun berri bat aktibatzeak aukera.

Eta aukera horretarako presatzeko, gure ohiko eremuetatik aterako gaituen hausnarke-ta bati ekin behar zaio. Nik ulertzen dut bide sakrifkatua dela, baina iruditzen zait hori dela aukera bakarra. Bestea opioa da. Baikortasuna koldarkeria da. Eta gauzak gaizki ikusiagatik, ez diot beharrezko iruditzen zaizkidan gauzak egiteari uzten.

Badira lan oinarritzakoak eta lehenagokoak, egin behar direnak eta ez direnak egiten ari: bilerak, gogoetak, jendea entzun... Ezkerraren ibilbidearen legatu politikoaren beste produktu makur bat da mundu guztiak pentsatzen duela militantzia une adierazkorrera mugatzen dela: kalera atera, martxan egon, merchandisinga erabili eta hori Instagramera igo. Baina militatzea hori dela pentsatzea futbolean jokatzea golak ospatzea dela sinestea bezalakoa da. Futbolean jokatzea hori baino askoz gehiago da, hori da garrantzi gutxien duena: jokaldiak egin behar dira, taldekideekin egon, baloia pasatu, fisikoki entrenatu... gol bakoitzaren atzean hiru urteko prestaketa dago.

* *Eta, hara non, elkarriketa egin eta egun gutxira, "Kriptotxanponen iruzurraren" auzia lehertu da. Zentzu komun berri horren aktibaziorako aukera ote? Datozen asteetan izango dugu erantzuna.*

Herrietako komertzioa k arriskuan daude aspalditik, saltoki handi eta merkeek indarra hartu zutenetik, baina nolabait bizirautea lortu dute batzuek, kalitatezko produktuak edota produktu bereziak eskainiz. Oraingoan, berri, etsai berri bat dute: Txinatik datozen plataformak. Denetik saltzen dute. Imajinatu dezakezun edozein produktu hor izango dute. Eta ez badago, existitzen ez den seinale da. Gainera, preziorik merkeena dute.

Shein eta Temu saltoki biralez ari gara. Nork ez ditu ezagutzen? Interneten bideo bat ikusten, albiste bat entzuten edo joko batera jokatzan ari garenean ikusten ditugu horien publizitateak, sekulako eskaintzak erakutsiz. Kontra egiten dietenek argudiatzen dute prezio baxuetan saltzerakoan, kalitatea ez dela onena, eta arrazoiak dute neurri batean. Agian produktuak ez dira herriko saltoki baten parekoak, baina askotan Amazonen saltzen diren berdinak dira. Are gehiago, Sheinen kasuan, adibidez, diseinatzailerekin elkarlanean aritzen dira moda kolekzio bereziak ateratzeko, prezio lehiakorrean. Inditex inperioa oraindik nagusi den honetan, diseinatzailer txiki horientzat ezinezkoa litzaiteke euren moda kolekzioak beste modu batera kaleratzea.

Frankiziazko produktuak ere baditu Sheinek, eta "Harry Potter", "Friends" edota Disney bezalako marken produktu ofizialak lor daitezke, denda ofizialetan izango luketena baino prezio baxuagoan. Gainera, saltokiaren barruan, sub-

markak daude, bakoitzak kalitatearen arabera prezioak ditu, eta bere "luxuzko" atala ere badu, baita makillaje zein azala zaintzeko produktuei zuzendutako atala ere. Azken urteetan arrakasta gehien izan duen saltokia izan da Shein, eta hainbat hiritan *pop-up* dendak zabaltzera iritsi da.

Temu beranduago sortu zen arren, joko bidezko promozioak eskaintzen ditu (erruletaren jolasa deskontuak lortzeko; produktu "garesti" bat opari beste zazpi produktu erosiz gero, berdin du zenbat balio duten...). Trikimailuak erabiltzen dituzte bezeroak erakartzeko eta erosleengan premiak sortzeko. Sheinen bezala, Temun aurkitu daitezkeen produktu asko Amazon bezalako bestelako *market place* dendetan eskuratu daitezke, baina garestiago.

Mundu mailan izaten ari diren arrakasta ikusita, eta horiekin lehiatzea guztiz ezinezkoa denez, herrialdeek, euren produktuak eta saltokiak babestu nahian, mugak jartzea erabaki dute. Adibidez, Estatu Batuek muga-zergei buruz hartutako erabakiak zuzenean eragingo die Shein eta Temuri. Donald Trump presidentek Txinatik datozen salgaiei zerga gehigarriak ezartzea erabaki zuen, bi mundu potentzien arteko tentsio komertzialen aurrean. Era berean, herrialdean sartzen diren fardel txikiek ere zergak izango dituztela erabaki da, orain arte 800 dolarretik beherako balioa zutenak zergatik at bazeuden ere.

Horretaz baliatu dira Txinako plataforma handiak orain arte: azken 10 urteetan mugazergarik ordaintzen ez zuten fardelen kopurua %600 handitu zen. Adituek diote platafor-



MUGA-ZERGEN AUZIA

Plataforma txinatarrei zangotraba

 **EKONOMIA** / Nagore BELASTEGI MARTIN

Azken urteetan gure kontsumitzeko eredua izugarri aldatu da. Lehenik saltoki handiak eta frankiziak iritsi ziren, gero internet bidezko erosketak, eta azken boladan Txinatik datozen plataforma merkeak, denetik eskaintzen digutenak. Horiei mugak jartzeko bidean dira Estatu Batuek, baina baita Europa ere.

mak «moldatu egingo direla» eta ziur aski orain arteko prezioak eta aniztasuna ezingo dituztela mantendu, eta aldaketa horrekin kontsumitzaileak ere galduko duela. Saltoki elektronikoa aditua den Laëtitia Lamarik dioenez, «plataforma txinatarrek kontsumitzailea-

ren egunerokoaren parte dira, Walmart, Target edo Amazon bezalaxe». Temuren %20-30en salmentak Estatu Batuetatik datoz. Sheinen kasuan, datuak altuagoak dira oraindik, %30-40, dio adituak.

Trumpek proposatutako neurriak suposatzen du enpre-



sek formalitate administrati-boei sarriago erantzun behar-ko dietela, eta kontrol gehiago egongo direla, bidalketak atze-ratuz. Muga-zergen ondorioz, prezioak igoko dira eta kontsumitzailearen esku egongo da prezio igoera hori onartu edo ez. «Hala ere, kontsumitzaile estatubatuarrek ez du aukera askorik: Amazon Haul, 20 dolarretik beherako produktuak eskaintzen dituen Amazonen atala, Txinako produktuez hornitzen da».

Kontuan izanik Shein eta Temu ere *market place* direla, alegia, saltoki txiki eta ertainek saldu ahal izateko plataformak direla, enpresa handiak ez diren bestelako kaltetuak ere egongo dira. «Eragina suntsitzailea izango da Internet bidez saltzen duten ehun milaka enpresa txiki-

rentzat», dio Sheng Lu-k, Delawareko Unibertsitateko irakasleak. Izan ere, saltoki txiki hauek jada %30eko tasa bat ordaintzen diete bitartekariei.

Plataformek hartu dezaketen bidea Estatu Batuetan biltegiak osatzea izan daiteke, edota bertako banatzaileekin harremanak jostea. «Temuk, adibidez, salgaiak Txinatik kanpoko biltegietara bidali ohi ditu, bezeroari zuzenean baino gehiagotan», dio Rui Ma-k, Tech Buzz-en sortzaileak. Baina jokatzeko era honek ere baditu bere arriskuak: biltegiak erosi edo alokatzean inbertitu behar dute, produktuen kudeaketak ere baditu gastu batzuk, eta gainera, orain arte eskaintzen duten malgutasuna mugatu daiteke.

KALITATE KONTROLAK

Europak ere online saltokiei mugak jartzea adostu du; Europako Batzordeak esan du ez dela Estatu Batuekin ados jarri —gaia mahai gainean jarri zuen 2023ko maiatzean—, baina erabakia une berean eman dute aditzera. European muga-zergak 150 euroko fardelei ezartzen zaizkien arren, aurrerantzean muga hori desagertu daiteke, zerga fardel guztiei ezarritik. 2024an 150 eurotik beherako 4.600 milioi bidalketa egin ziren European; 12 milioi fardel egunean, 2023ko datuen bikoitza eta 2022ko datuen hirukoitza.

Muga-zegarik gabe, Shein eta Temu merke saldu ahal zuten European, eta honek xehekari europarrekiko «lehia desleiala» zekarrela uste zuen Bruselak. Merkatuko baldintzak parekatzeko helburua du arau berriak, plataforma hauek Europako Batasuneko beste edozein enpresak dituen baldintza fiskal berdinak izan

Hartuko diren neurriek bezeroarengan eragina ere izango dute ziurrenik: prezioen garestitzea, fardelak jasotzean atzerapenak eta produktuen aukera murriztagoa

2024an 150 eurotik beherako 4.600 milioi bidalketa egin ziren European; 12 milioi fardel egunean, 2023ko datuen bikoitza eta 2022ko datuen hirukoitza

ditzaten. Aurretik esan bezala, honek prezio igoerak ekarriko ditu ezinbestean.

2024ko ekainean, Bruselak Informazio formalaren eskakizun bat egin zion Sheini, bezeroei legalak ez diren produktuen inguruan informazioa eskaini diezaien eta gardentasuna izan dezan. Jasotako erantzunak baliozkotzat hartzen ez badituzte, saltokiari isun bat jartzea aztertzen ari da Batzordea. Bestalde, Kontsumitzaileen Babeserako Europako Lan-kidetza Sarea kontsumo araudi komunitarioa urratzen duen edo ez aztertzen ari da. Plataforma txinatarrek ematen duen erantzuna berebizikoa izango da European izango duen etorkizuna bermatzeko.

Hori dela eta, Europak badaiki Txinako plataforma haue-tan saldutako produktu batzuek ez dutela betetzen EBko araudia, kalitate, material edo segurtasun aldetik, batez ere jostailu, kosmetiko edota produktu elektronikoei dagokienez. Kontrol falta horren aurrean eta saltzen diren produktuak estandar europarrak betetzen dituztela bermatzeko, kontrolak indartuko dituzte aduanetan. Hala, salgaiek bezeroarengana iristeko beharko duten denbora luzatzeaz gain, produktu asko erretiratuak izango dira ikus- kapenak gainditu ezean.

Shein eta Temu bezalako plataformak arau berrietara moldatzea lortzen badute, agian Europako merkatuarentzat interesgarriak izaten jarraitu dezakete, prezio baxuetan oinarritutako negozio eredua mantentzea lortzen badute. Izan ere, kontsumitzaileak alde dituzte nolabait. Estatu Espainoleko Kontsumitzaileen Elkarteak Europako Batzordeari eskatu dio plataformekin elkarlanean aritu daitezela, saltzen dituzten produktuen segurtasuna bermatzeko, baina, aldi berean, kontrolak prezioen igoeran ez islatzeko, finean, «galtzailea» eroslea delako.

«Gainera, politika komertzial honek Europak Estatu Batuei egin dien eskakizunarekin talka egiten du. Ezin dugu gauza bat egin eta horretaz kezatu beste herrialde batek Europari egiten dionean», adierazi du elkarteak.

Azkenik, kontsumitzaile elkarteak uste du Europako Batzordeak ez duela Europako enpresa eta teknologia indartzeko politikarik egin azken urteetan, eta horregatik izan dute hainbesteko arrakasta plataforma txinatarrek; «Europako teknologiak ez du batera axola mundu mailako panoraman», iritzi du.

Shein eta Temu ari gara denbora guztian, horiek direlako saltokirik arrakastatsuenak, baina beste mordoxka ere badira, tartean saltoki eredu honen aitzindari izan zen Aliexpress, edo faltsifikazioak saltzeagatik ezaguna egin den Haco. Denda horietan erosten dutenak adi ibili beharko dira datozen aldaketen aurrean, litekeena delako enpresei ez ezik, kontsumitzaileari ere eragitea neurriek, zeharka, besterik ez bada ere.

2024ko udaberrian Sheinek «pop-up» denda bat zabaldutuen Madrilen, bi astez zabalik egon zena.
Alejandro MARTINEZ VELEZ | EUROPA PRESS



GAUR8 *ireki gure leihoa*

Ula IRURETAGOiena BUSTURIA- @ulissima5
Arkitektoa




Sukalde kolektiboak

Kozinatzearen ekintzak hirirako izan lezakeen balio eraldatzailea argudiatzera natorkizue. Hemen argudioa laburrean: sukaldeko lana

zerbitzu publiko kontsideratzen denean, sukalde kolektiboek auzoak elikatu eta espazialki antolatu ditzakete, beste dotazio publikoek (ikastetxea, kultur etxea, osasun etxea) egiten duten moduan.

Sukaldea etxearen gune neuralgikoa izatera ohituak gara, hau da, espazio pribatu, indibidual eta domestikoa lotuta. Eta etxeko sukaldeari karga sinboliko handia jarri diogu. Emantzipatzailea izan daiteke sukaldearen aktibitatea zure gain hartzea gazte eta gizonezkoa izatekotan; eta, era berean, sukaldeaz libratzea emantzipatzailea izan daiteke emakumeen zerbitzari paperari popatik emateko. “Playboy”-ren zuzendari ohiak, Hugh Hefnerrek, argi izan zuen, gizon ezkongabearen etxea sortzeko garaian, kozinatzeako erraztasuna ematea funtsezkoa zela emakume ezkonduarengandik autonomia eskuratzeke, sukalde teknologiko bat diseinatzera. Bigarren mundu gerrate ondorengo gizartearen berregitean, komiki itxurako sukalde-marrazkiek iruditeria bat sortzeko balioa zuten familia nuklearraren lotzaile gisa, irudiaren protagonismoa emakumeari eskainiz, bere figura subalternoa zedarritzeko bakarrik, noski. Azken mendeetan herrialde eta kultura desberdinetako sukalde domestikoen sexu desberdinkeria indartzeko balioa izan dutela esatea ez dirudi oso arriskatua denik.

Hiri edo herri bat goitik begiratu eta sukaldeen detektagailu batekin mapa bat osatuko bagenu, sukalde kopurua handia topatuko genuke, ia



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOiena BUSTURIA

denak espazio pribatuetan, etxeetan eta taberna/jatetxeetako ate atzekoetan. Sukaldearen eta kozinatzearen balio kolektiboa arakatzeko, sukalde testuinguru domestikotik eta monetarizazio nahietatik atera beharko dugu. Eta sukalde kolektibo bat iruditatzeko, euskal lurraldetik urrutiratu beharko gara.

«Cocina popular» Latinoamerikako hainbat lurraldetan zabaldurik den sukalde mota bat da; herri bazkariak antolatzen dituzte eguneroko janaria biztanleriari emateko ekonomikoa den diru kantitate baten truk. Asiako kulturaren “street food” eredua hedatuta dago, eta kaleetako sukalde domestikoen biztanleria elikatzen dute eskuragarriak diren prezioekin, baina ez nahastu “fast food”-arekin, kalitatezko sukaldaritza eskaintzen

baita enpresa domestikoen formatuan. Kaleko sukalde-jatetxe garaikideak “janari zentroetan” biltzen dituzte, eta zentro hauen inguruan etxebizitza sozialak egokitzen dira askotan. Japonian ezagunak egiten ari dira “haurrentzako sukaldeak”, etxe-erakin kolektiboen behe oinetan kokaturik, edadetuek kozinatu egiten dute hurrekin batera, zaintza eta elikatzeko funtzioak elkartuz eta auzoarentzako espazio lotzaile bote-retsua sortuz.

Kasu desberdin guztietan, ederra egiten zait hirigintzaren oinarrian elikadura prezio egoki batean eskuratu eta janari prestatua eta osasuntsua lortzeko funtzioa egotea, zerbitzu publiko bezala ulertzea (hau da, ongi elikatzeko bermatu beharreko eskubide izatea). Eta horretarako, sukalde kolektiboak diseinatzea. •

arkitektura / psikologia / teknologia

3 BEGIRADA:

ARRANTZAREN GEROA

Donibane Lohizuneko portuko arrantzaleak, kontrako korronteen artean iparraren bila

 **LEHEN SEKTOREA** / Amets SUSPERREGI

Euskal Herrian, arrantza eta itsas kultura beti izan dira garrantzitsuak, eta hori gorpuzten dute Donibane Lohizuneko portua bezalako tokiek. Portu honek, Lapurdiko kostaldearen bihotzean kokatua denak, itsasoari lotutako historia aberatsa du. Bertan, arrantzaleen tradizioak, itsasontzien historia eta itsasoarekiko maitasuna elkartzen dira.

Garai bateko bale-ehiztarien eta itsasgizonen abiapuntu, portu honek bere iragana harrotasunez darama. Gaur egun, bere izaera nabigazioaren eta turistaren harat-honatek aldatu badute ere, portuak bere xarma gordetzen du oraino. Arratsaldeko argiak uraren gainean dirdira egiten duenean, txalupen siluetek azken olatuen musuak jasotzen dituzte. Bertako jatetxeetako arrain freskoaren usainak, itsasoarekin izandako lotura estuaren lekuko, zentzumenak esnatzen ditu.

Donibane Lohizuneko portua ez da soilik arrantza-jardueraren gunea; itsas kulturen eta historiaren ikurra baizik. Bertako kaian, arrantzaleen solasaldiak, itsasontzien mugimendua eta arrain freskoaren lurrina eguneroko bizitzaren parte dira. Alta, xarma horren guziaren gibelean, eguneroko gogorra ezkututzen da. Arrantzak gero eta erronka handiagoei egin behar die aurre. Garai batean euskaldunen ofizioa izandakoa gutiengo geror eta apalago batera kondaturik, zer gogoetatua bada. Horretarako hurbildu gara gaurkoan Mikel Epalza eta Eric Bonnamyren gaitasuna, biak ala biak arrantzan eta itsas gaian adituak.

Hozka egiterik ez da, amua botatzerik ez bada. Debe-kuak, zaintza, kuotak... neurriak ezartzeko arrazoiekin bat egin arren, horiek arrantzale ttipiengan dituzten ondorioen lekuko dira Mikel Epalza eta Eric Bonnamy. Aldaketa klimatikoaren eraginak begi bistan, Donibane Lohizuneko portuko arrantzaleek parean dituzten erronkak aztertu dituzte.

Txoko hauetan «itsasoko apeza» bezala ezaguna, Mikel Epalza 1946ko otsailaren 14an sortu zen Haltzun, zortzi anai-arrebaren artean bigarren. Bere gurasoak espainiar Gerra Zibileko errefuxiatuak ziren, eta familia Donibane Lohizunera joan zen bizitzera Mikelek 4-5 urte zituela. Orain, erretretan da urte luzaz arran-

tzale izandakoa, eta ekimen giristino anitzen jardueran jarraitzen du.

Eric Bonnamy (Biarritz), berriz, 1974ko agorrilaren 17an sortu zen Baionan. Herriko Etxean zinegotzia izan zen 2014tik 2020a bitarte, gaur egun arrantza zaintzan maila profesionalean jarduten duelarik.

Donibane Lohizuneko portuaren ikuspegi ederra. Alta, xarma horren guziaren gibelean, eguneroko gogorra ezkututzen da. Guillaume FAUVEAU

Azken horrek ahalbidetu dio ikustea arrantza flotaren ebolutzioak gora egin duela azken urteetan, eta gero eta ontzi handiagoak eta teknologia aurreratuagoak erabiltzen direla. «Hala ere, flota handi hauek maiz lehiatzen dira administrazio publikoek inposaturiko arrain kantitate mugatuen inguruan, eta horrek gatazkak sortzen ditu arrantzale txikien eta handien artean», ohartarazi du. Gaineratu duenez, flota modernoek energia gehiago kontsumitzen dute, «ingurumenaren kaltetan». Beraz, «flotak berriztatu eta jasangarriagoak bihurtzeko proiektuak garatu beharko lirateke, arrantzale eta administrazio publikoen arteko komunikazioa bermatzen duten egiturak bateratuz, proiektuak elkarrekin finduz, eta batez ere



arrantza jasangarriagoa izan dadin arreta berezia jarritz in-paktu txikiena eragiten duten arrantza metodoekin» dio argiki Eric Bonammyk.

«Ipar Euskal Herriko ontzie-tatik bistaratu daitezkeen arazoak gaur egun mundu osoan itsasoan eta arrantza sektorean garrantzitsuak dira, eta horiek ulertzea ezinbestekoa da Euskal Herriko itsas tradizioa eta etorkizuna zaintzeko», adierazi du itsas apezak. Zentzu horretan, «aldaketa klimatikoa, arrantza neurri berriak eta debekuak, arrantza flotaren bilakaera, eta garai berrietara egokitzeko baliabideen falta dira gaur egungo erronka nagusiak» dio arrantzazainak.

Faktore horiek guziek eragin nabarmena lukete arrantzaleen bizimoduan eta itsasoko ekosistemaren orekan: «Aldaketa klimatikoak itsasoaren tenperatura igoarazi du, itsas korronteak aldatu ditu eta espezieen banaketa eraldatu du», baieztatu du biarritzar-rak. «Itsas mailaren igoerak kostaldeko herriak eta portuak mehatxatzen ditu, eta horrek babes-neurriak eta egokitzeko estrategiak eskatzen ditu», gaineratu du Epalzak.

Horrek guziak, arrantzaleen ohiko arrantza-eremuak aldatzearekin batera, espezie berriak arrantzatzea eragin du, usaiako arrantza-jardueraren biziraupena kolokan ezarritz.

Arrantzaleen garai berrietara egokitzeko beharraz gogoe-tatu du Bonnamyk: «Egokitze-ko beharra dago, baina horretarako, baliabide ekonomikoak, formakuntza eta laguntza teknikoak behar dituzte. Baliabide horiek falta badira, zailtasun handiak sortzen dira, eta horrek arrantza-jarduera tradizionalaren irau-

pena arriskuan jar dezake». Horregatik, administrazio publikoek eta erakundeek laguntza-programak eta finantzaketa proiektuak bultzatu behar dituztela defendatu du, arrantzaleen egokitzapena bideratze aldera.

Hain zuzen ere, azken urteotan Europako Batasuneko eta nazioarteko politikek arrantza-jarduera jasangarriago bihurtzeko neurri zorrotzak ezarri dituzte, hala nola arrantza-kotak eta eremu babes-tuak, baita debekuak ere, 2024az geroztik. Neurri hauek itsas-baliabideak babesteko beharrezkoak badira ere, arrantzale anitzentzat zama gehigarri dira, batez ere, baliabide ekonomiko mugatuak dituzten ontzi ttipienentzat. Honak eskatzen du arrantzaleek beren jarduera berrantolatzea eta teknologia berriak baliatzea, baina horretarako haien beharren neurriko laguntza eta finantzaketa behar direla aldarrikatzen jarraitzen dute.

LEGATZA ETA SARDINA

Pirinio Atlantikoetako departamentuan, bereziki Ipar Euskal Herrian, Europako Batasunak ezarritako debeku horiek arrantzaleen lan aukeretan, eta beraz, euren ekonomian eragin zuzena izan dute.

Zenbakiak dira horren lekuko. Pirinio Atlantikoetako eta Landetako itsas arrantzaren eta itsas haztegien departamentu arteko komiteak argitaraturiko azken txostenaren arabera, legatza eta sardina dira arrantzatutako espezie nagusiak. Hala, lurraldeko sektorearen ekonomian pisu handia dute. Legatza da, du-darik gabe, gehien arrantzatzen dena, hau da, %44 (2.637.560 kg, hain zuzen). Nagusi da bolumenari dagokio-



Mikel Epalza, kamerari
begira irribarretsua.
Patxi BELTZAIZ

nez, baita balio ekonomikoari dagokionez ere: 11.228.404 € urtean. Sardinak, berriz, bolumen handia izanik ere (1.086.708 kg), balio ekonomikoa anitzez apalagoa dute, hau da, 820.139 € urtean.

Debeku horiek, alde batetik, itsas izaki migratzaileen arrantzaren gaineak dira, arrain-populazioen kontserbazioa babestu eta ingurumenaren kudeaketa jasangarria izan dadin. Beste alde batetik, azken urteetan, arrain-populazioen murrizketa eta itsasoko ekosistemen kalteak nabarmen emendatu dira, eta horrek gobernuak zein Europako Batasunak arrantza tradizionalaren praktiken inguruan legeak gogortzea bultzatu du. Espezie batzuek, tartean legatza, sardina eta antxoa, beheiti egin dute, eta horrek, bistan denez, eragin zuzena du euskal arrantzaleen sektorean.

Epalza arrantzale ohiak bertako arrantzaleekin lotura estua izan du betidanik, eta gaur egun ere sektoreko ahotsetako bat da. Bere ustez, arrantza sektoreak bizi duen egoera arriskutsua da, eta Europako Batasunaren legeek eta debekuek arrantzaleen lan baldin-

tzak larriagotu dituzte. Hala, Epalzak arrantzaren etorkizunaren inguruan kezka handiak ditu, dirulaguntzak sektorearen egiturazko arazoak konpontzeko aski ez direlakoan, «arazoa ez baita maila ekonomikora mugatzen».

Izan ere, gainerakoetan bezala euskal lurraldeko portuetan, Donibane Lohizunekoan kasu, frantziar Gobernuak arrantzaleen jarduera zorrotz kontrolatzen ari da, lurraldeko arrain-kontserbazioaren mesedetan, baina espezie arrantzagarrrien mugatzean, lanerako aukerak ttipitu eta lehiakortasuna areagotu egin da, eta merkatuaren lehia horretan, arrantzale ttipienak dira beti kaltetuenak, bi arrantza gizonek berretsi dutenez.

IZURDEEN HILTZEAK JATORRIAN

Debekuen jatorrian, hain zuzen, izurdeak daudela azaldu du arrantza zainak: «Azken urteetan konturatu gara gero eta izurde gehiago hiltzen direla gure kosten inguruan. Hondartzetan gorpuak ikusi izan ditugu azken boladan. Izurdeei azterketak egin, eta ikusi genuen izurdeen azaletan sare arrastoak eta zauriak zeude-



la». Bere ustez, ekologia zaintzeko betebeharra duten organismo publikoek arrantzaleen sareei eta arrantzatzeko metodoei bota zieten errua. Konponbide bat atzeman nahian, Bizkaiko Golkoan arrantza debekatzeko hautua hartu zuten frantziar Estatuko Ozeano Atlantikoko departamenduek, Britainiatik hasita Pirinio Atlantikoetara, ugaztun hauek aktibitate handiena duten garaian, hau da, urtarilaren 20tik otsailaren 20ra.

Garai horretan gertatu zenaren lekuko, «izurde arrantza debekatua egonda ez saldu ez kontsumitu ezin dutenez, uretara bota behar izaten dituzte

gorpuak, eta bestela, hondartzetan utzi behar izaten dituzte», adierazi du Bonnamyk. Honi guztiari erremedioa aurkitu nahian, lehen fase batean, arrain arrantza kantitateak kontrolatu nahi izan zituzten, baina sistema berriztatzaile honek eraginkortasunik ez zuen lortu. Beste aterabiderik ezean, Europako Batasuneko botereek, frantziar administrazioaren bidez, lau astez arrantza pelagikoa debekatzeko erabakia hartu zuten, kontuan harturik izurdeek Bizkaiko Golkoko eremu pelagikoan (ur-azaletik 50m-tara) pasatzen dutela haien biziaren parte handiena.

Ontzi bat eta bere isla, Donibane Lohizuneko portuko uretan.
Guillaume FAUVEAU

Gauzak horrela, frantziar Gobernuak dirulaguntzak eskaintzen ditu, debeku garairako. Laguntza horiek arrantzaleen ibilgailuak eta arrantza-materiala berritzeko eta modernizatzeko balio dute, baina Bonnamyk nabarmendu duenez, dirulaguntzak ez dituzte debekuek ekartzen dizkieten galearak orekatzen, arrantza-eremuen murrizteagatik eta espezieen kantitateen gainbeheragatik. «Gobernuek sektorearen egoera erreala ulertu behar dute, gero eta egoera larriagoak bizi dituzte eta arrantzaleekin elkarlanean aritu behar dute irtenbide eraginkorrak bilatzeko», aldarrikatu du.

Bere ustez, arrantza sektorearen etorkizuna bermatzeko, beharrezkoa da debekuen eta neurrien arteko oreka atzematea, ingurumenaren babesa eta arrantzaleen bizibidea uztartuz. Horretarako, hainbat neurri proposatu ditu Epalzak: «Ikerketa eta garapena sustatzea arrantza-jarduera jasangarriak bultzatzeko, formakuntza eta berrikuntza programak garatzea arrantza-leentzat, lankidetzaren sareak indartzea sektorearen beharrak hobeto ulertzeko, merkataritza bideak zabaltzea tokiko produktuentzat, eta ingurumenaren babes proiektuak sustatzea arrantzaleen parte-hartzearekin».

GOLKOKO KORRONTEA

Donibane Lohizuneko portua biziarazten duen arrantza-eremua arrantzale ttipiena da, eta debekuak ofizioarekin aitzina egiteko zama bihurtu bazaizkie, zama hori astuntzen jarraitzen du aldaketa klimatikoak. Aldaketak berak soilik ez, honen kudeatzeko plantan ezartzen diren politikek ere bai. «Estatu Batuetan, klimato-

zeptiko baten lehendakaritzak egungo egoera ez du hobetzen, eta bitartean itsasoko tenperaturak eta itsas mailak etengabe gora doaz, ingurumenaren eta gizartearen etorkizuna arriskuan jarritzak», ohar-tarazi du biarritzarrak.

Golkoaren Korrontearen moteltzea da aldaketa klimatikoaren ondorioetako bat. Honako hau Ozeano Atlantikoko korronte bero eta azkarra da, munduko kliman eragin handia duena. Mexikoko golkoan eta Ipar Atlantikoraino hedatzen da, Europa mendebaldeko klima epeltzen lagunduz. Bere moteldura tenperaturaren eta gazitasunaren aldaketekin lotuta dago. Gaur egun klima aldaketak eragindako munduko itsas korronteetako moteltzea, jarioetasunaren ahultzea, zientzia adituen ustez, kezagarria da, mundu osoko itsas ekosistemetan eragin handia izan dezakeelako.

Azken ikerketek agerian utzi dute Golkoaren Korrontearen moteltzea. 2021ean “Nature Geoscience” aldizkarian argitaratutako ikerketa* baten arabera, Golkoaren Korronteak azken mendearen bertan bere ahultasun mailarik handiena erakutsi du, kasik mila urtetan ikusi ez den mailan. Ikerketa horrek ondorioztatu zuen klima aldaketak, bereziki Groenlandiako izotzaren urtzeak eta honen ondorio den ur gezaren isurketak, eragin handia duela korrontearen moteltzean. Horrek mundu osoko itsas mailaren igoera, klima muturreko gertaeren areagotzea (udan muturreko beroa eta neguan, berriz, muturreko hotza) eta itsas-ekosistemen migrazioan aldaketak eragin ditzake, nahiz eta oraindik zer-nolakoak liratekeen zehaztu gabe izan.

Golkoaren Korrontearen moteltzeak eta ahultzeak ez dute soilik Euskal Herriko kostaldean eragiten, mundu mailan baizik. «Klima aldaketa eta itsas-ekosistemen funtzionamendua gaur egungo ikerketagai nagusiak dira, arrantzaleen eguneroko jardueretan ondorio larriak izanen dituztela aurreikusi baitute», zehaztu du Bonnamyk.

Korrontearen ahultze horrek Europako kliman aldaketa esanguratsuak ekar ditzake, tartean, negu hotzagoak eta eurite gehiago Europa mendebaldeko kostaldeetan. Horrek itsas-ekosistemen dinamika naturalaren aldatzea ekarriko luke, tenperaturaren jaitsiera areagotuz Europar kontinentean, itsas mailaren igotzea eraginez, besteak beste, Ipar Atlantikoan. AZTI ikerketa zen-

troak behin eta berriz jo du alarma fenomeno honek dakartzan arriskuengatik; hau da, finkatutako klima-eredua, arrantza-patroiak eta itsas-ekosistemen dinamika eraldatzea.

Arrantzale ohiak azaldu du aldaketa horien guzien aitzinean tokiko arrantzaleak neurriak hartzen hasiak direla: «Euskal arrantzaleek aldaketa horiei aurre egiteko egokitzapenak egin behar izan dituzte, arrain-espezieen migrazioek eta lekualdatzeek sektorean eragina izan baitute».

Ofizioari segida emateari begira, egokitzapen gaitasunaren beharra azpimarratu du Bonnamyk. Funtsezkotzat du, adibidez, arrantzatzeoko teknika berriak garatzea. «Euskal arrantzaleak jada aukera berriak bilatzen hasi dira, baina


gobernuek, administrazioek eta arrantzaleek elkarrekin jarraitu behar dute lan horretan» egin du oharra, bide horretan gaiaren gaineko ikerketak gako izanen direla ezarri mahaigainean.

Itsasoaren inguruko gizonentzat, zalantzarik ez da, Golkoaren Korrontearen aldaketek Euskal Herriko arrantzaleen egunerokotasuna antzaldatu dute. Arrainen lekualdatzeak eta espezie berrien etorrerak ohikoak bihurtu dira, uraren tenperatura igoerarekin. Nagusiki, hiru espezie ezagunen ikusgarritasuna emendatu dute gure kostaldean: «Baleztarriak (Balistes capriscus), olagarroek (Octopus vulgaris) eta txipiroiek (Loligo vulgaris) inoiz baino presentzia handia-

goa dute arrantzaleen sareetan», zehaztu du Bonnamyk.

Hala, itsasgizonek agerian utzi dutenez, euskaldunen ofizio zaharrak geroz eta baldintza gogorragoei egin behar die aurre. Abiadura bizian gailentzen ari zaizkien fenomenoek egokitzapenerako gaitasunaren mugetaraino iristera bultzatzen dute. Berrikuntza, egokitzapenak, horretarako laguntzak eta administrazioen arteko lankidetzak halabeharrezkoak izanen dira sektoreak biziraun dezan. Norbaitek izatekotan, ordea, arrantzaleek dute ur nahasietan aitzina egiteko gaitasuna, portu onera helduko diren esperantzaz.

**Iturria: Nature Geoscience, 2021.*




Itsasontzia aldarrikapen banderolarekin.
Guillaume FAUVEAU



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



Aezkoako euskara – euskara batua - Aezkoako euskara; hori da hiztegiaren atal nagusia. 7.500 ele ditu guztira. Horrez gain, ipuin musikatuak aditu daitezke QR kode baten bidez, eta lekukotasunak irakurri edo entzun daitezke, beren argazkiekin. Bildu dituzten hondarreko testigantzak dira, bizirik daudenak, ze prozesu honetan hiltun anitz joan zaizkie.

517 orrialdeko liburua da, Aezkoako Batzarraren eta Euskarabidearen laguntzarekin plazaratua. Zerika Taldeko Edurne Vidador Barberena eta Bittor Aroskoa Moso izan dira koordinatzaileak. Filologoa lehena, AEK-ko irakaslea bigarrena; bien jakituria uztartuz atera dute lana aitzinera.

Iñaki Camino filologoak egindako Aezkoako euskararen lexikoaren azterketa bat ere badakar lanak. Hor ikusten da zer-nolako harremanak izan dituen ondoko bailarekin. Aurizki eta atzizkien atala ere bada. «Gehienak batuaren berdinak dira, baina badira zenbait bereziagoak», azaldu du filologoak. Adibidez, “zutu”, “aroa” erran nahi duena.

Azalean agertzen den mendia Pettuberro da, sorginen kondairaz inguratutako toki magikoa, Aezkoaren erdi-erdian kokatua.

ZERIKA TALDEA

«Artelanean egindako lan bat da, guk artelan erraten baitiogu auzolanari. Talde handia da, eta haiei ere omenaldi ttipi bat egiten diegu, izenak aipatuz eta eskertuz», nabarmendu du Aroskoak.

Euskararen egoera larria zela ikusita, 2012an Zerika Taldea



AEZKOAKO ELEAK

Galzorian den mintzo baten 7.500 hitz jaso dituzte hiztegi batean, «artelanean»

📁 **HIZKUNTZA** / Maider IANTZI GOIENETXE

Artelanean edo auzolanean egin da Aezkoako Euskara Hiztegia. Nafarroako Pirinioetan euskaraz elekatzen direnak 50 herritar baino gutxiago dira, aetzen %5. Egoera kritiko honetan, lanari ekin diote, dagoena ez galtzeko eta pizgarri izateko. Edurne Vidador Barberena eta Bittor Aroskoa Moso koordinatzaileekin mintzatu gara.

sortu zen Aezkoan. Hala oroitut du Vidadorrek: «Ikastaro batzuk antolatu genituen, hizkeraren gramatika eta hiztegia barneratzeko, eta behin ikasirik, euskara gelditzen zen lauzpabost herrietara joan ginen, berezko euskaldunekin praktikatzera eta ikastera. Material piloa biltzen joan ginen, hitzak, erramoldeak zein adi-

bideak, eta pentsatu genuen zerbait egin behar genuela».

Azkuek, Artolak eta bertze batzuek lehenago bildu zituzten eleekin osatu dute hiztegia. Caminok 4.000 hitz eman dizkie. Ahozko lekukotasunak ere badira: Zerikak bildutakoak, Eusko Ikaskuntzarenak eta ahotsak.eus-ekoak. «Gure helburua zen euskara batua

oinarri zuten euskaldunentzat hiztegi bat egitea. Hortaz, EHUKo lexikologo batzuekin ipini ginen harremanetan. Oinarrizko nozio batzuk eman zizkiguten eta programa bat ere eskaini ziguten, hizkuntza gutxituekin erabiltzen dena. Hori baliatu genuen», agertu du filologoak.

Behin informazioa antolatuta, ohartu ziren herriz herri aldatzen zirela hitzak eta ahotsak. Inkesta batzuk zabaldu zituzten, bidelagun batzuen bidez, aldaera erabilienak zein ziren jakiteko. Horrek aukera eman zien hiztegia ordena baten arabera eraikitzeko.

Errepasoak «izigarriak» izan direla aitortu du: ikusteko ea erratak zeuden, zeintzuk ziren hemengoak ez ziren eleak, azentuekin zer egin... Irailetik hona zuzenketa lanekin aritu dira Caminorekin eta Xamarrekin, azken ediziora iritsi arte. Lamiñarra argitaletxearekin atera dute.

Aezkoako Euskara
Hiztegiaren aurkezpena,
Iruñeko Karrikirin. Ezker-
eskuin, Xamar, Edurne
Vidador eta Bittor Aroskoa.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

Bakarrik errepasoetan hiru urte luze pasa dituztela azaldu du irakasleak. «Kontuan hartu behar da gure lanetik kanpo egin dugula, ordu ttipietan. Ez gara herri berean bizi eta lan mardulena Meet bidez egin dugu. Horrek ere zailtzen du». Denera bortz urte izan dira. Geroztik ele berriak atera dira. «Lan hau ez da sekula bukatzen, hizkuntza bizirik dago eta. Daramagun salmenta erritmoarekin hiztegiak fite bukatuko zaizkigu eta bigarren edizioa egin beharko dugu!», bota dio Aroskoak Vidadorri. Izan ere, harrera biziki ona izan dute. Ariben egin zuten lehen aurkezpena otsailaren 14an. «Adiskide batzuek aureskua eta guzi dantzatu ziguten. Hunkigarria izan zen. 50 lagunetik goiti bildu ginen, interesa dagoen seinale», kontatu du Aroskoak.

Segidan Iruñean plazaratu zuten, eta bero hartu zituzten Karrikirin ere. **BILAKAERA** Vidadorrek adinekoen ilusioa goraipatu du: «Beraieendako harrotasun bat da, onartzen delako beren hizkera, ttipitan debekatua izan zutena, balio-tsua dela». XX. mendearen hastapenera arte etxe eta karrika guzietan egiten zen Aezkoako euskara, baina gero erdara prestigioa hartzen hasi zen, administrazio, hedabide eta toki guzietarako hizkuntza ofiziala hori zen. Gerran eta frankismoan debekua izan zen eskolan zein kalean, hor gurasoek erabaki zuten euskara ez transmititzea, eta galduz joan zen. 1970eko hamarkadan aetzen erdiek zekiten bertako euskara. 20 urte geroago, laurdenak. 2010ean %10ak, eta egun kon-

«Eskolan eragin nahi dugu, ikastaroak eta hitzaldiak emanez, irakasleak inplikatzuz. Eragileei jakinarazi nahi diegu hor gaudela, laguntzeko. Denen inplikazioa behar dugu»

Hiztegiaren koordinatzaileek ikasi duten guzia erabiltzen dute. Euskara berezia da, baditu eragin franko: Zaraitzukoak, Esteribar eta Urraulgoa, Baztangoa zein Garazi aldekoa

tsideratzen dute euskaraz %40 inguruk dakiela, batua eta aezkera kontuan harturik, eta Aezkoako euskara egiten dutenak %5 izanen direla, 50 hiztun edo gutxiago. Aezkoako lau herritan biltzen da nagusiki berezko mintzaira: Abaurregaina, Hiriberrri, Aria eta Garralda. Gazte batzuek badakite, baina ez dago berezko transmisiorik eta gelditzen diren hiztunak 65 urtetik gorakoak dira.

Zerika Taldeko merenduetako bilgio edo bilkura bat. ZERIKA TALDEA

Zerika Taldeak, egin dituen bilgioekin (bilkurekin) eta hiztegi honekin, espero duena da, nahiz eta beharbada mintzoa galduko den, inguruko eskualdeetan gertatu den bezala, batua oinarri duten pertsonen Aezkoako euskara ezagutzea, kontsultatzeko tresna bat izatea eta, batez ere, erabiltzea. Beren ustez, pizgarri bat izan daiteke berezko euskara ikastea, eta ikasitakoa praktikan ipintzeko baliabideak ematen dituzte. «Nahi duguna da eskolan pixka bat eragin, ikastaroak eta hitzaldiak emanez, irakasleak inplikatzuz. Eragileei, baita instituzioei ere, jakinarazi nahi diegu hor gaudela, laguntzeko prest», azaldu du Aroskoak. «Bildu ditugun ele batzuk hemengoak dira, baina besteak ekialde zabal batekoak, eta interesgarriak dira inguruko eskualdeendako ere», gaineratu du kideak. Hiztegiaren koordinatzaileek ikasi duten guzia erabiltzen dute. «Ni ez naiz Aezkoan bizi eta ene hautua izan da Aezkoako euskara erabiltzea. Hala galdegiten didate: ‘Ze euskara klase da hori?’. Zaraitzukoaren antza du, Baztangoarena, Garazi aldekoarena, denetarik erraten didate. Badu denetarik zerbait», kontatu du Aroskoak irriz. Laguna bat dator: «Hemengo euskara berezia da, baditu eragin franko. Aetzak joaten ziren Iparraldera lanera, batez ere Garazira, orduan baditu bertako ezaugarriak. Zaraitzu, Esteribar eta Urraulgoak ere bai. Pot-pourri bat da». **ELE POLITAK** Gustuko hitz batzuk aipatzeko eskatuta, honakoak eman dituzte: epeitze (jan-edan eder bat), otso-pazka, mahaipen



txistu (norbait berandu etor-
tzen bada eta hitzik gabe gel-
ditzen bada erraten zaio), gen-
goaldi (agurtzeko edo
“aspaldiko” errateko), datxiko-
la (Vidadorren gustukoena,
ahal duen guzietan erabiltzen
du, “segidan” adierazteko),
be(h)artzen zireleik zato ene
bila (eskertzeko adierazpena),
zerika (taldearen izena, ‘zer
moduz’ galdetzeko), amitxi
(amatxi), apitxi (aitatxi)...

Hitzak istorioekin batera ja-
so dituzte, bizi dugunaz daki-
gulako elekatzen. Haurtzaroa
kontatzen dute, eskola garaia,
lana, abeltzaintza eta nekaza-
ritza, kontrabandoa...

Aroskoa: «Eguneroko isto-
rioak azaltzen dituzte, baina
anitz jotzen dute aroan bizita-
ko gauzetara: ttipitako jolasak,
nola bizi ziren gaztetan... La-
borantzarekin lotutako aferak
dira, etxearen inguruan beti».

GEROA

Etorkizuna falta zitzaien
anitzetan elkarriketetan, eta
galdegin diete ea euskararen
geroa nola ikusten duten, bai-
ta Irati ibaiak bustitzen dituen
lur hauen etorkizuna ere.
«Gainbeheran dago, biztan-
leak ez dira 900era ailegatzen,
horrek eragina du guzian, bai-
na gustatu izan zaigu geroko
historiak kontatzea, zer asmo
duten etorkizunari begira»,
adierazi dute.

Eduene Vidador Garraldan
sortu zen duela 31 urte, eta
bertan bizi da. «Jende guti bizi
da hemen, lan egiteko aukerak
eskasak dira eta anitz Iruñera
joaten dira; batzuek joan-eto-
rria egiten dute, baina norma-
lena da han gelditzea eta aste
hondarretan etortzea».

«Populazioa zahartua dago.
Egia da gazte anitzek egin du-
tela orain hemen gelditzeko
apustua eta familia handiak

ere sortu direla. Bagoaz aitzia-
na; gehiago behar da, ordea:
lanpostuak, bizitzeko auke-
rak», defendatu du.

«Etxeak biziki handiak eta
zaharrak dira, behar dira berri-
tu, gazteek independizatzeko
aukera handirik ez dute. Lan
eta etxebizitza afera da, eta hi-
riburuarekiko urruntasuna,
ordu bateko bidaia da».

ARBASOEI OMENALDIA

Vidadorren “amitxi-apitxiek”
denek bazekiten “uskara”. Gu-
rasoek ez, baina aita berreus-
kaldundu zen. «Niretzat ikastea
izan da nire arbasoei omenaldi
bat egitea: ‘Zuek ezin zenuten
egin, nik berrartuko dut eta
saiauko naiz ahal bezainbat
transmititzen’. Euskararekiko
eta familiarekiko nuen zor zer-
bait zen», erran du.

Bittor Aroskoaren kasuan,
antzeko zerbait da. 46 urte di-
tu eta garraldarra da, bertan
bizi ez bada ere.

«Zortea izan nuen euskara
ikastera eraman nindutelako.
Aitaren partetik Garraldakoak
dira, hauek euskara bazekiten,
amatxirekin elekatu izan dut,

Proiektuaren parterik
ederrenetakoa euskaldunen
arteko topaketak izan dira.
Bilkurak berreskuratu nahi
dituzte, badirelako
hiztunak eta badelako zer
ikasi eta zer praktikatu.
ZERIKA TALDEA

baina aitatxirekin ez, eta pena
hori badut. Amaren partetik
zaraitzuarrak dira eta amatxi-
rekin ere okasionea izan nuen
elekatzeko eta grabatzeko eta
guzi. Gasteizera ikastera joan
nintzenean, nire euskara garbi
horrekin, galdetzen zidaten ea
donostiarrak nintzen. Gure
ahaideetatik badugu nondik
tiratu, banekien ikasi behar
nuela, ez nekien nola, eta Zeri-
kak eskaini dit okasionea ikas-
teko. Horretan segitzen dut».

AEK-n, ikasleei egunero erra-
ten die: «Praktikatzen ez dena
segidan atzentzen da. Elekatu
edo elekatu, ez dago bertze-
rik». Aezkoako euskararekin
gauza bera da. «Geure artean

aritzen gara, Zerika Taldean,
eta adiskideekin ere bai ahal
dugularik. Jakin-mina sortze-
ko manera bat da: ‘Zer erran
nahi duzu horrekin?’».

ZERGATIK IKASI?

Zergatik ikasi galtzeaz dagoen
mintzo bat? Berdina gertatzen
da ondoan dituzten bailare-
tan, berriro ikasten ari dira
galdurik dauden ele batzuk.
«Dena da euskara eta dena da
aberasgarria, denentzat da in-
teresgarria hitz berriak ikasi
eta erabiltzea», aldarrikatu du
Vidadorrek.

«Beti koherentzia batekin
ibili behar dugu, inguruko
eleak erabiliz. Batuaren parte
ere bada. Zertaz ez ibili berta-
ko eleak urrunekoak bilatu
baino? Arront politak dira, gai-
nera. Hor dago gakoa, eta ibi-
liz, eragingo dugu bertzeen-
gan. Gares aldean eskolak
ematen ari dira, beren min-
tzoa berreskuratzen. Erronka-
rin ere bai».

Elkartzean sentitzen dute
indarra, eta horren aldeko
apustua egiteko prest daude
aetzak ere.



«Zertaz ez ibili bertako eleak urrunekoak bilatu baino? Arront politak dira. Hor dago gakoa, eta ibiliz, eragingo dugu. Garesen eta Erronkarin ere beren mintzoa berreskuratzen ari dira»

Hona hiztegiko zenbait ele: epeitze (jan-edan ederra), otso-pazka, mahaipen txistu (hitzik gabe gelditzen denari errateko), gengoaldi (‘aspaldiko’ errateko) eta datxikola (segidan)



Leire LAREKI SANCHEZ eta Eneko MENDILUZE PLAZA
Psikopedagogo eta psikologoa

Emozioen adierazpena gorputzean

Emozioak egoera ezberdinen aurrean gure gorputzean ematen diren erantzun soziopsikobiologikoak dira eta gure egunerokotasunean erabateko garrantzia dute. Beraien adierazpena ez da buruan soilik ematen, esate baterako, eztarria estutu daiteke, bihotzaren taupadak areagotu, edota bularraren airea hartzeko gaitasuna txikitu. Maiztasunez ez diogu gure gorputzari arretarik eskaintzen, eta honetarako aukera da orrialde hau.

Beraz, ariketa gisa, koloreekin adierazi behar izango bazenu hipo-aktibazioa, hau da, gorputzaren egoera neutraletik beherako aktibazioa, urdinez, eta hiper-aktibazioa, gorputzaren egoera neutraletik gorako aktibazioa, horiz, non adieraziko zenituzke zure emozioak zure gorputzean?

Hitzaren bitartez zentzua eraikitzen dugu. Emozioak izendatzearen bitartez gure barne munduaren ulermen sakonagoa eskuratu dezakegu, egunerokotasuneko erronkei erantzun egokiagoak edota osasuntsuagoak emanez. Emozioak bi talde nagusitan banatu ohi dira: batetik, oinarrizkoak; poztasuna, tristura, haserrea, beldurra, sorpresa eta nazka, eta bestetik, bigarren mailakoak; besteak beste, lotsa, harrotasuna, inbidia, jeloskortasuna edo erruduntasuna. Era honetan, emozioen gorpilak oso ulerterraza bilakatzen du emozioen sailkapena, erdigunean oinarrizko emozioak kokatuz eta gorpilaren azalean, oinarrizko emozioetatik abiatuta, bigarren mailakoak.

Behin ona iritsita, galdera labur bat. Zer moduz esnatu zara gaur? Ezin da ez ongi, ez gaizki, ez erdipurdi adierazi. Erantzuna zertxobait sakonagoa izatea gomendatzen da.

Emozioak sentitu, onartu eta kudeatu. Hitza garrantzi handikoa da prozesu honetan. Gure emozioen adierazpenak gure kontzientzian sakontzea ahalbidetzen du eta hitza bitarteko oso egokia izan ohi da emozioen intentsitatea orekatzeko eta, osasuntsua ez bada, kontrolatzeko. Egia da hitza ez dela bitarteko bakarra kudeaketarako. Badira arnasketa eta gorputz ariketa oso egokiak ere, baina hemen, hitzaren bitarteko kudeaketari arreta laburra eskainiko diogu, euskararen bitarteko izendatzeari, hain zuzen.

Azken finean, emozioak ez dira jaio-tzetikoak soilik. Bizi esperientziek eta kulturek ere modelatzen dituzte, hau da, gizartearen baloreek emozioen adierazpenean eragin zuzena dute eta gure sinismenak eragina dute gure emozioetan. Honelako alde anitzeko ekuazioa eraiki izan ohi da: sentsazioa-emozioa-sinesmena-ekintza.

Beraz, nola izendatzen ditugu euskaraz emozioak eta non kokatzen dira gure gorputzean? Horretarako, L. Nummenmaa ikertzaile finlandiarren ikerketa sentsaziotopografikoa oinarri (2014), hiper eta hipo-aktibazioa




kontuan hartuta, beheko irudian ikus daiteke nola adierazten diren emozioak gure gorputzean (ikerketak laginaren batezbestekoa adierazten du, noski). Goialdean oinarrizko emozioak daude kokatuta, eta azpialdean, bigarren mailako batzuk.

Gure barne ongizaterako, emozioekin epaiketarik gabeko konexioa, gure adimenean lekua egitea eta beraien esanahia aztertzea bitarteko ederrak dira. Emozioen onarpenak esan nahi du ez daudela emozio onak eta txarrak, guztiek baitute bere funtzioa eta guri buruzko informazio oso balio-tsua eman ahal baitigute.

Alde batetik, eta amaiera gisa, gure gorputzaren atal sozio, psiko eta biologikoak erabat konektatuta daudela ondorioztatu daiteke, eta bestetik, hizkuntzaren bitartez oreka lortu dezakegula. Gure gorputzari ematen diogun narrazioaren bitartez, gure barne orekan sakondu dezakegu, eta gure emozioen behaketa kuriosoari dei egin nahi diogu hemendik.

Sakon arnastu, eta kuriositatearekin; beraz, bidaia on. •



{ koaderno } **Xabier IZAGA**

Ezkio eta Gasteiz Palestina eta Ukrainara begira

Ezkiotik edo Gasteiztik? Non lotu Nafarroako eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako AHTak? Kontu horrekin hobe lukete zalaparta handirik ez sortu, Donald Trumpi atentziorik ez emateko. Berak lotunea non egin erabaki ez dezan, alegia. Konezioa Bizkaiaren eta Nafarroaren arteko kontua baino ez balitz, konponbide erraza izango luke auziak; lotune biak egingo lituzkete eta kito. Bilbotarren kontura, jakina (Athleticek 7-1 irabazi berritan, mapamundia-
ren azken bertsioa erakutsi zidaten; aspaldi honetan “Amerikako golkoa” ageri zen lekuan, “Bilboko udal igerilekua” idatzita dago).

Eman dezagun superTrumpek Gasteizko aukeraren alde egin eta trukean Urizahar eta Moratzako anbar aztarnategiak eskatzen dituela. Kontuan izan, Urizaharrekoak Arabaren administraziopekoak badira ere, Moratzakoak Trebiñun daudela, Gaztela eta Leonen administraziopean. Trumpen lagun Santiago Abascalen alderdiak Gobernu horretatik alde egin zue-
nez, gatazka siderala sortu liteke, PPK bere burua mapa geopolitikoan kokatu artean behinik behin.

Ukrainako gerrak bake santuan jarraitzen zuen (oximorontzarra) Etxe Zuriko eta ile laranjako presidentea iritsi eta lur arraroak harrotu arte. Bukatzeko ordua dela erabaki du bere babespekoaren egoerarik txarreanean. Izan ere, Ukrainak negoziatzeko aukera hoberik izan du, baina indar posizio hobean zela haren aliatuek gerraren aldeko erabakiari eutsi izan diote, laguntza militarra aginduta. Eta agindu ez ezik, eman ere egin diote, eta orain batez ere Europak emandako laguntza horren ordaina eskatzen dio estatubatuarrak bere aliatu zapuztuari.

Ukrainaren egoerarik txarreanean eta haren etsaiarekin adostuta erabaki du Trumpek gerra amaitzea. Ha-

ren presa handiaren erakusgarri, Vladimir Putinek Errusiako mineral estrategikoak ustiatzeko inbertsioak egitera gonbidatu ditu AEBak, atzo goizera arte etsairik zitalena zuenarekin lankidetzan aritzeko prest. Eta bakerako grina horren inguruko gogoetarik egiteko astirik batere eman gabe, Ukrainak biharamunean iragarri zuen AEBekin bere baliagai naturalak partekatzeko akordioa, presidente bien atzoko bileraren zain.

Bitartean, NBEk esan du Ukrainako gerra herrialde biren arteko gatazka dela; beraz, Ukrainak bake negoziazioetan parte hartzeko aukera daukala ematen du. Eta Europak? Ez al du ezer merezi, AEBen atzetik kalapita, sesioa eta liskarra xaxatu ondoren?

Azken asteetan, 2024 YR4 asteroideak Lurra jotzeko duen arriskuaz ohartarazi du NASAk –Lurrarenak egin

«Ukrainako gerrak bake santuan jarraitzen zuen (oximorontzarra) Etxe Zuriko eta ile laranjako presidentea iritsi eta lur arraroak harrotu arte. Bukatzea erabaki du bere babespekoaren egoerarik txarreanean»

dezan laguntza behar bagenu bezala–, eta asteazkean esan zuen ez duela joko, hala gertatzeko probabilitateak %3tik %0,004ra egin duela. Egun bereko gauean 642 palestinar askatu zituen Israelek, lauzpabost egun lehenago askatu behar zituenak, eta su-etena indarrean zirauen; hala ere, badirudi luze gabe gerra betea itzultzeko probabilitatea asteroideak lurra jotzekoa baino dezente handiagoa dela.

Erabateko gerraren beldur ote dira, esate baterako, Gazan egunero haurtxoak hotzez hiltzen zaizkien horiek? Edo Jenin okupatu eta frankotiratzailen betean beren etxetik egotzitakoak? •

Irudikatzen duzue Eus-
kal Herriko 88 urteko
emakume bat ekono-
mialari? Eta marxista?
Eta Katedradun? Eko-
nomia *oikos-nomos*
(etxearen kudeaketa) izanik,
makina bat izan dira etxea
tentuz kudeatu duten “ekono-
mialariak”. Bizitzen produkzio
eta zaintzan “katedradunak”
direnak ere ez dira gutxi.

Hala ere, naturaz “ezjakinak”
omen zirenez, adin mutxu ho-
rretako emakumeen artean ez
dira asko unibertsitatera joate-
ko aukera izan dutenak, ezta
bertan irakasle izan direnak
ere. Miren Etxezarreta Zubiza-
rreta (Ordizia, 1936) da horieta-
ko bat. Eta, egia zor, ez da bat
gehiago: London School of
Economics-en egin zituen
masterra eta doktoretza, alajai-
na, eta gerora, hamaika artiku-
lu eta liburu argitaratzeaz gain,
Katedradun ere bilakatu da,
betiere kezka eta borroka so-
zialen eskutik.

Ibilbide oparo horri aitortza
egin nahian, Ordiziako Udalak
Etxezarretaren lanak sailkatu,
artxibatu eta digitalizatu ditu
berriki (mirenetxezarreta.eus
plataforman daude irakurgai).
Aitzakia polita iruditu zaigu
berarekin elkartu eta bere ibil-
bide eta pentsamenduari erre-
paso bat emateko.

ORDIZIATIK EKONOMIA IKASTERA

Miren Etxezarreta 1936an jaio
zen, Ordizian, frankistek Esta-
tu-kolpea jo baino hilabete gu-
txi batzuk lehenago: «Zure os-
tean gerra etorri zen», esaten
omen zioten eskolako monjek.
Gerraostean ez zen giro Ord-
izia aldean, baina berak, «garai
hartako haur guztiek bezala,
hautzaro zoriontsua» gogora-
tzen du: «Ni biloba eta iloba
nagusia nintzen, orduan mi-
mo asko izan nituen». Gaine-

«Pobreak eta aberatsak zergatik dauden ulertzen saiatu izan naiz beti»

 **EKONOMIA** / Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Ordiziatik London School of Economics-era, eta handik Bartzelonara, ibilbide oparoa egin du ekonomialari marxistak.
Rosa Luxemburgen leloa gaurkotuz, “Sozialismoa edo kaosa” aldarrikatzen du.



ra, berea «garai hartako klase ertaineko etxea zen. Nire gurasoek denda nahiko dezentea zuten, eta ondo bizi ginen».

Horrek bere ikasketetan ere bete-betean baldintzatu zuen: «orduan Batxilergoa egiten zuten, baina nire etxean ez zuten nahi, kontabilitatean eta gauza horietan guztietan nik laguntzea nahi zutelako». Hala, “peritaje merkantila” egiten hasi zen, mojen eskolan bertan. Gero Donostiako Komertzioaren Eskolan irakaskuntza merkantila egin zuen.

Hor jabetu zen Ekonomia Zientziak ikasi zitzaizkela, ikasgai ugari balioztatzen zizkioteko: «Nik ikasten jarraitu nahi nuen. Eta une hartan Batxilergoa egin gabe ikasten jarraitzeko modu bakarra Ekonomia Zientzietara pasatzea zen, hori zen automatikoki pasa nezakeen karrera bakarra. Eta, gainera, gizarte- eta ekonomia-gaiak gustatzen zitzaizkidan. Baina arrazoi nagusia zen ni, Batxilerrik gabe, irakaskuntza merkantiletik Ekonomia Zientzietara pasa nintekeela. Karre- ra aukeraketa inposatuta zetorkidan, nolabait esateko».

Gogotsu ekin zion, ordea. Hasieran hautu pragmatiko bat izan bazen ere, bere ezinegonak garatzeko aukera izan zuen karreran: «Agian orain edertu egingo dut, baina nik beti izan dut pobre eta aberatsekiko dezenteko kezka soziala: zergatik zeuden pobreak eta zergatik zeuden aberatsak. Eta horrek ekarri zuen Ekonomia ikasketetan ongi aritzea».

Garai hartan ez ziren asko hautu hori egiten zutenak, are gutxiago emakumeen kasuan: «Ez dut zehazki gogoratzen, baina Bilbon 8 neska eta 120 mutil ginen, edo halako zerbait. Mutil-laguna bilatzeko leku ona zen», dio barrez.

LONDON SCHOOL OF ECONOMICS

Orduan eta gehiago ikasi, gero eta ezjakinagoak omen gara. Etxezarreta ere horretaz jabetzen zen, nonbait, eta bide berrien bila Ingalaterrara jo zuen: «Ingalaterra erreferentea zen, eta nik ordurako ingeles pixka bat ikasia nuenez, hara joatea erabaki genuen bikoteak eta biok, horko sindikalismoaz edo politika sozialez ikasteko».

Hori «lanean ari ginen bitartean, noski, beste baliabiderik ez genuelako». Xume-xume hasiagatik, hainbat beka lortu eta London School of Economics Unibertsitate entzute-tsuan sartu zen: «Sortu zenetik aitzindaria da, beti garrantzitsua izan da. Batzuetan desesperatu egiten ginen, lan asko egin behar genuelako. Baina esaten genuen: ‘Tira, mundu osoko azkarrenekin lehiatzen ari gara’. Oso interesgarria, baliotsua eta aberasgarria izan zen». Hamarnaka kurtso eskaintzen ziren eta berarentzat «mozkorraldi» moduko bat izan omen zen.

Garai mugitua zen, horratio, eta ekonomian eta gizartean sekulako paradigma aldaketa gauzatzen ari zen. Oraindik neoliberalismoa ez zen hegemonikoa, «artean Keynesen eragina oso indartsua baitzen. Hala ere, ekonomialari ‘modernoagoak’ neoliberalismora

«Ingalaterra erreferentea zen, eta nik ordurako ingeles pixka bat ikasia nuenez, hara joatea erabaki genuen, horko sindikalismoaz edo politika sozialez ikasteko»

Bilboko Unibertsitatean ez zioten kontratua berritu: «Klasea emateko prakak janzteak edo ikasleekin kafea hartzera joatea irakasle batzuei ez zitzaien gustatzen»



Nekazaritza izan da bere ikergai nagusietakoa. Horren inguruko tesia egin zuen eta «El caserio vasco» liburua argitaratu zuen 1977an. Oriol CLAVERA

pasatzen ari ziren. London Schoolen neoliberal dezentegoen jada». Adibidez, Makroekonomia ematera Chicagotik joaten omen zen irakasle bat, 15 egunean behin (Chicago Boys-en laguna, noski).

Etxezarreta ordurako kritiko izaten hasi ote zen? «Bai eta ez. Izan ere, nik hainbeste lan nuen kurtsoak jarraitu ahal izateko... denbora horretan, ni neoliberalismoaren kritiko samarra nintzen agian, baina bizirautearekin nahikoa nuen».

Gainera, ekonomia agrario-ko masterra egin ostean doktoretza egiteko hautatu zuten, eta buru-belarri hasi zen horretan: «Leonen egon nintzen hiruzpalau hilabetez, horko nekazariei inkestak egiten. Bizikletaz joaten nintzen herri batetik bestera, ez bainuen dirurik beste modu batera joateko, eta ez zegoen gaur beste garraio publiko». Ikerketa le- rro horri lotuta, besteak beste, “El caserio vasco” liburua argitaratu zuen 1977an.

FAKULTATETIK KALE GORRIRA

Aurrez, baina, izan zuen nahikoa gorabehera. Behin doktoretza amaituta eta pare bat

urtez Sussexeko Unibertsitatean irakasle aritu ostean, 1970ean Euskal Herrira itzuli zen eta Bilboko Unibertsitatean hasi zen lanean, ilusioz gainezka. Hala ere, bi urte soilik iraun zuen bertan: «Frankismoaren errepresioaren garai gogorra zen. Ni nintzen Fakultatean euskaraz hitz egiten zuen bakarretakoa, Etxezarreta abizena nuen, nahiko abertzalea izatearen ospea zuen apaiza nuen neba... horren guztiaren eta irakasleren batek nik bere tokia kentzeko zuen beldur- ren ondorioz, bi urtera, kontratua ez zidaten berritu».

Argudio adierazgarriak erabili zituzten horretarako: «Adibidez, klasea ematera joateko prakak janzten nituen batzuetan eta jende bati edo irakasle batzuei ez zitzaien gustatzen. Edo ikasleekin kafea hartzera joaten nintzen, eta hori ere ez zuten gogoko... Ni ez nintzen enteratu ere egiten. Ni tabernara joaten nintzen eta ikaslerik bazegoen berarekin hitz egiten nuen, baina orduan ez zen hori egiten». Gerora baloratzen duenez, «inuzentegia» izan zen.

Kontuak kontu, «kalean geratu nintzen, orduan ez bainuen ez langabezia-saririk, ez beste ezer». Alde batera eta bestera ibili zen enplegu bila, lantxo solteren bat ere egin zuen... alabaina, «nik ez nuen enplegurik aurkitzen, jende inportante bategen esaten baitzuen ‘ez, andre horrek administrazioarekin arazoak baditu, ez diogu enplegurik emango’. Leku interesgarriren batean enplegua ematekotan zeudenean, hori gertatu zen». Bere senarra ere langabezian geratu zen, arrazoi politikoak zirela medio.

Orduan, «beste norabait joatea erabaki behar izan genuen. Madrilen eta Bartzelonan hasi ginen enplegu bila, bi ekonomialarik lana izatea errazena zen tokia zelako. Lagun batzuei esker, Bartzelonan aurkitu genuen azkenean». Gustuko zuten, «eta gainera, zu langabezian zaudenean, ez duzu pentsatzen gustuko duzun ala ez, enplegua dagoen tokira joaten zara». Adeitasun handiz jaso omen zituzten.

Behin Bartzelonan, «nik nahi nuen gauza bakarra Unibertsitatera itzultzea zen, nire curriculumak akademikoa zela ikusten nuelako». Curriculumak, akademikoa ez ezik, oso ona zen, eta 1974an Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan hasi zen lanean.

2006ra arte irakasle bezala eta gero Katedradun emeritu gisa, ibilbide akademiko eta sozial oparoa garatu du bertan: Ekonomia Kritikoko Seminari Taifa bultzatu, hamarnaka artikulua argitaratu, hitzaldiak eman...

Ekonomia marxista

Bidea urratu ahala, pixkanaka ekonomia kritiko edo marxistara hurreratu zen: «Ekonomia orduan eta gehiago ikasi,

irakasten ziguten ekonomia gero eta gutxiago gustatzen zitzaidan. Orduan, pixkanaka, ekonomia marxistaren bila hasi nintzen».

Bide horretan, mugarri bat aipatzen du: «Bada liburu bat, niretzat funtsezkoa izan zena. Paul Sweezyren ‘Garapen kapitalistaren teoria’ izan zen. Niretzat, mundua ulertzeko ateak ireki izan balitzaizkit bezala izan zen. Benetan, ezin duzu irudikatu ere egiten zer den, ekonomia tradizionala aztertzen ia 20 urte neramatzanean, bat-batean bizitzen ari ginen mundua ulertzen lagundu zidan azalpen bat aurkitu izana».

Ordiziarrek argitzen duenez, bere kide marxista askoren kontrako bidea egin zuen: «Ni ez nintzen marxista izan politikagatik. Ez nintzen lehenengo Alderdi Komunistara joan eta gero marxista egin. Ez, ez, ni ez naiz inoiz inongo alderditan egon, komunistan ere ez. Ez dut baztertzen eh, baina ez naiz egon. Orduan, ni marxismora iritsi nintzen munduan gertatzen zenaren azalpen baten bila. Eta azalpenik onena eman didana, orain arte, marxismoa izan da». Bere ustez, ez du dena azaltzen, baina bera da gehien azaltzen duena.

Hala nola «marxismoak azaltzen dizu nork dominatzen duen, nork hartzen dituen erabakiak, nork duen boterea, nork irabazten duen dirua, nor den esplotatua...». Aitzitik, ezin da bertan goxo geratu, «marxismo ortodoxo batean. Marxismoan dagoena irakurri, ikasi eta egokitzen joatea da kontua, azalpenekin eboluzionatuz joatea».

Kapitalismo antisoziala

Eta zer ikasi du azalpen horietatik? Marxismotik edanda, antikapitalista sutsua da Etxe-

zarreta. Izan ere, bere iritziz, kapitalismoa beti antisoziala izan da: «Kapitalismoa feudalismotik sortu zen, eta hori guztia beti produkzio-bideen eta kapitalaren jabeentzako etekinen bila egiten da. Hori oso argi dago». Engelsen “Langile-klasearen egoera Ingalaterran” (1845) aipatzen du sorrerako baldintzak nolakoak ziren azaltzeko. «Eta nolakoak izaten jarraitzen duten!», nabarmentzen du, «ze kaiukoan datozen horiek ez datoz beste modu batera, eh. Kapitalismoa ez da aldatu gizakiak gizakia esplotatzeari dagokionean».

Tartean Ongizate-estatua eraiki zen Mendebaldean. Ordiziarra, baina, oso kritiko agertzen da: «Ongizate-estatua sozialdemokraziaren bilaketa eta asmakizun bat da, kapitalismoa demokraziarekin bateragarri egin nahi zuena. Eta ez da posible. Baina urte askoan balio izan zuen, eta oraindik balio du, kapitalismoaren hondamendi handienak arintzeko».

Hala ere, hori ere suntsitzen ari dira azken hamarkadatan: «Ongizate-estatuaren suntsipena 70eko hamarkadan hasi zen, Thatcherrekin eta ondoren Reaganekin. Keynes erortzen doa eta neoliberalismoa hazten. Orduan, ekonomia konbentzional edo burgesaren paradigma aldatu egiten da, neoliberalismoarekin hasi eta Trumpenganaino, oraingoz».

«POBREAK, ABERATSAK DAUDELAKO»

Etxezarretak ikertu izan duenez, kapitalismoak hainbat esparrutan eragiten du. Lehenik eta behin, nekazaritzan: «Gertatzen dena zera da: kapitalismoak, bere horretan, jabetzaren, kapitalaren eta ekoizpenaren kontzentrazioa jotzen duela. Enpresak ge-



roz eta handiagoak bihurtzen dira. Eta hemen zegoen nekazaritza familiarra txikia zen. Orduan, zer gertatu da? Pixkanaka-pixkanaka, nekazaritza agroindustrialaren metatzeko ahalmena areagotu egin da, teknologia modernoagoak eta konplexuagoak erabiliz. Bien bitartean, nekazaritza familiarra gero eta baztertuago gertatzen ari da, ez duelako gaitasunik ez merkatuetarako, ez finantzaketarako...». Gutxi batzuen kapital-meta orduan eta handiagoa, gehiengoarena gero eta urriagoa.



«Marxismoak azaltzen dizu nork dominatzen duen, nork hartzen dituen erabakiak, nork duen boterea, nork irabazten duen dirua, nor den esplotatua...»

«Burutik kendu behar da ‘Trump eroa’ delako ideia. Ez da eroa, kapitalismoaren estrategia oso programatua eta planifikatua da, munduaren jabe egiteko bidean»

ten du: «Pobreak daude aberatsak daudelako».

KAPITALISMO GEROZ ETA BASATIAGOA

Eta norantz doa sistema kapitalista? Etxezarreta zuhur eta kezkatuta agertzen da: «Etap honek ikasteko eta hausnartzeko gaitasuna oso murriztuta dudala harrapatu nau. Dena den, nik ikusten dudana gauza bakarra da jendeak ez badugu erreakzionatzen, ez badugu borrokatzen, okerrera joango dela, kapitalismoa gero eta gorreragoa dela. Eta izaten ari da: kaiukoetan datorren jende hori guztia, herrialde aberatsetan bizi den jende pobre guztia... jende hori guztia esplotatua izaten ari da, hala egon behar ez lukeenean».

Adibidez, «adimen artifizialaren historia hau guztia, jasaten ari garen mila-miliodun horiek guztiak... kapitalismo basatia da. Langileentzat gero eta okerragoa da, gero eta gehiago esplotatzen ari direlako, nola erreakzionatu ez dakiten moduetan. Izan ere, XIX. eta XX. mendeetako langileek bazekiten nola erreakzionatu, baina orain oso zaila da. Batzuek izan ezik, nork ulertzen du adimen artifizialarena?».

Alde horretatik, «niri iruditzen zait jendearen burutik kendu behar dela ‘Trump eroa’ delako ideia. Ez da eroa, estrategia oso programatua eta pla-

nifikatua da, nahiz eta gero erotuta dagoela iruditu. Orduan, nik uste dut kapitalismoaren estrategia bat dela, munduaren jabe egiteko bidean aurrera egiteko».

«SOZIALISMOA EDO KAOSA»

Horren aurrean, zer egin? Etxezarretaren ustez, «klase herrikoien borrokarako gaitasunaren zati handi bat suntsitu da, eta galtzen joan gara orain arte. Gauza txikiak irabazi dira, egia da. Batzuek esaten duten bezala, duela mende bateko biztanleak baino hobeto bizi gara, nahiz eta pobrezia gehiegi egon... klima-krisiagatik ez balitz, ekoizten ari garena baino askoz gehiago ekoitzi ahal izango genuke, eta, batez ere, banatu, ez baikara banatzen ari»

Bere iritziz, SESBek erakusten du «akats asko egin direla. Garai hartan inozoak ginenontzat, SESBek sozialismoaren gauzatzea esan nahi zuen, eta begira zertan amaitu zen. Hor benetako desastreak egon dira». Bide batez, «esperientzia horiek guztiek erakusten dutena da kapitalismoa ikaragarri indartsua dela, eta orain arte asmatutako esperientzia guztiei buelta emateko gaitasuna izan duela».

Edozein kasutan, «badira oraindik nukleoak, gauza ezberdinak probatzen ari direnak: Indian badago Estaturen bat, Kurdistango Rojavan...». Hortaz, Etxezarretarentzat ez dago etsitzerik: «‘Sozialismoa edo kaosa’ da ataka. ‘Edo borroka edo kaosa’. Gizarte alternatibo baten alde borrokatu behar dugu. Ze gizarte? Denon artean erabakitzen duguna. Baina borrokatu beharra dago».

Horretarako, zalantzarik gabe, bere ibilbidea eta testuak funtsezko inspirazio iturriak izango dira.

Etxezarretak luze eta zabal ikertu izan duenez, metaketa gose horrek pentsioetan ere bete-betean eragiten du. Bereziki azken urteetan piztu da auzi hori, «funtsezko arrazoi bategatik: kapitalak ikusten du pentsioetan sekulako dirutza mugitzen dela, eta diru hori etekin gehiago lortzeko erabili dezaketela. Orduan, pentsio publikoak (publikoak, eh!) xahuketa hutsa direla iruditzen zaie, eta desagerrarazi egin nahi dituzte. Hala, pentsioetarako dirurik ez dela egongo eta halakoak esaten hasten dira».

Bere ustez, hori «gezur galanta da. NATOrentzat, bankuei laguntzeko edota hainbeste enpresari laguntzeko dirua egongo bada, nola ez da ba pentsioetarako dirua egongo?». Salatzen duenez, «beti pentsio publikoen arazoak hitz egiten da, baina inoiz ez pentsio pribatuez. Eta arazoa demografikoa balitz, belaunaldiena, arazoa pentsio pribatuena ere izan beharko litzateke. Baina pentsio pribatuei dagokienez, ez da inoiz zailtasun horiei buruz hitz egin». Itxura denez, arazoa, pen-

tsioetan baino, publikotasunean baitago.

Eta zer esan esan kapitalaren meta-pean estalitako zaintza lanez? «Atzo arte, eta gaur egun ere bai, zaintzak familiak egiten ditu, batez ere emakumeek. Gogoan izan baserri askotan, esate baterako, matrimonioa zegoe-la, eta gero beti izaten zela izeba bat, beti baztertua izaten zena familian. Ezkongabea zen, eta han geratzen zen nora joanik ez zuelako».

Beste hainbat esparru ere ikertu izan ditu Etxezarretak. Denetan logika bera atzema-

Oriol CLAVERA

naiz:



6 MINUTUKO ATALAK · B2 MAILAKO IKASGAIAK
HOBETU ZURE EUSKARA MAILA EUSKAL HERRIKO PENTSALARI, SORTZAILE, KIROLARI ETA IKERTZAILEAK EZAGUTUZ
TRANSKRIPZIO OSOA TOPATUKO DUZU NAIZ IRRATIKO 'ADI ETA ARI' ATALEAN


MARTXOAREN 10ETIK AURRERA

naiz:irratia

ASTELEHENETIK OSTIRALERA

20:50

ETA PODCAST PLATAFORMETAN

 Spotify  ivoox

Eskutik heldu

Itzea URKIZU
ARSUAGA

Postalak idatzi izan genizkion elkarri, urtetan, gabonak zoriontzeko. Bere ahotik ikasi genuen “Ran Rober Ran”, eta bazkalondoan berari kontatzen genion “makaloiak” jan genituela, edo soinean genituen panazko galtzak arrosa “fukkksia” kolorekoak zirela. Berak banatzen zigun behi esnea hamaiketako garaian, eta berarekin margotu genuen Pintto erraldoi hura.

Etxeko habiatik lehenengoz irten, eta egunero beste habia bat goxatzen zuen guretzat andereño Mirarik, gure haurtzaroko lehen irakasleak. Eskutik heldu zigun gure munduratzean eman-

dako pauso txikietan balantza eginez gero; malkoak xukatzen, belaunak urratuta beregana jotzen genuenean. Bera dago nire memoriaren oroitzapen zaharrenetako batzuetan, nahiz eta, paradoxikoki, bere oroitzapenek aspaldi hartu zuten lo.

Gerora, ez dakit zenbat irakaslek elikatu ote dituzten nire oroitzapenak, zenbat bidelagun izan ote ditudan bizitzaren plazara ateratzeko entrenamendu horretan; batzuk besteak baino gustukoago, batzuk besteak baino habiago.

Eskolaratzearekin batera, haurren bizitza-zatiek ihes egiten dute gurasoen kontrolpetik, eta hori pasatu beharre-

ko dolu bat da. Beste bat. Horregatik estimatzen ditut hainbeste nire erraie-tako hurrei halako goxotasun, boka-zio eta gertutasunez akonpainamendua egiten dieten profesionalak; gure begiak eta belarriak.

Eta horregatik da halako izugarrikeria, halako ankerkeria eta basakeria, haur xalo bat irakasle abusatzaile batek eskatutako isiltasunaren hari fin baina luzearen gainean funanbulistarena egiten aritu behar izatea, ez erortzeko hark eskutik helduko diola pentsatuz. Inork ez du merezi halako oroitzapenak pilatzetik; ezta abusatzaile nazkagarri baten memoriak ere. •

Duintasuna

Miren AZKARATE
BADIOLA

Pasa dira egun batzuk eta oraindik biharamunarekin nago han bizitutakoagatik. Batzarra baino egun batzuk lehenago hasi ziren urduritasunak eta gaizki lo egiteak, beti gai honekin gertatu izan zaidan moduan. Egun bat lehenago jakin nuen PSEk ere batzarra zuela leku berean ordu berean. Kasualitatea? Ez. Ez dira existitzen.

Otsailaren 15a iritsi zen eta gerturatu ginen Kursaalera. Ertzainak nahi, droneak hegan eta parkinera

sarreran altoa: “Zer zoazte, torturatuen batzarrera?”. Egoera surrealista.

Erraz erori zitekeen probokazioan, baina ez zuten lortu, eta sinistu, hamaika eratarai saiatu ziren.

Behin barruan, argazkia itzela zen, oraindik ez dut hitzik topatzen 900 torturatu batera ikusteak nolako zirrara sortu zidan adierazteko. Erraz esaten da: 900 (*bederatziehun*). Zenbat izerdi, oihi, malko eta odol.

Txanponaren beste aldean zenbat besarkada, zenbat maitasun, zenbat irribarre, zenbat begirada konplize.

Goxotasuna, zaintza, harrotasuna. «Ez zaude bakarrik, hemen gaude». Erreparaziorako hasiera ezin politagoa.

Ezin dute esan hau ez zela gertatu, baina kontuz, hau ez zela existitu esaten zutenak egindakoak justifikatzen hasiak dira orain. Egia, aitor-tza eta erreparazioaren bidea luzea izango da, baina hemen gaude torturatuak izan ginen milaka ahots horiek. Bagoaz!

«Garrantzitsua ez da egin ziguten hori, baizik eta egin ziguten harekin egiteko gai garen hori». •



Beñat Olea Madrilera egindako bisita batean, bere komikiaren promozioan. J.DANAE

*in*fraganti BEÑAT OLEA

Beñat Olea (Legazpi, 1987) 121.000 jarraitzaile ditu Instagram sare sozialean. Euskararen inguruko bideo bat argitaratu zuen eta birala egin zen, ordura arte zituen jarraitzaileak biderkatuz. Gerora bideoak igotzen jarraitu du, bere arteaz bizitzeko ametsa baztertu gabe.

Gabonetako kuadrillako bazkarian elkar ikusi genuen azkeneko, ez da hainbeste denbora pasatu, baina maite duzun norbait urrun bizi denean beti egiten da luze. Leioan ikasten ari ginean elkarrekin bizi izan ginen, eta nahiz eta aurretik jada lagunak ginen, lau urte horiek erabakigarriak izan ziren gure harremana estutzeko. Kafe bat hartzeko gelditu naiz

Beñatekin; Beñat Olea, gure Beñi. 10 urte dira Bartzelonara bizitzera joan zela, baina egutegian etxera, Legazpira, itzultzeko data batzuk ditu markatuta. Ez da kasua, elkarriketa batzuk eskaintzera etorri baita Euskal Herrira, orain influentzia delako. Gaztetxo askoren ametsa den arren, bere kasuan kasualitate hutsa izan da, bere benetako ametsak betetzeko balio izan diona. Izan ere, Olea –serio jarriko naiz– Arte Ederrak ikasi zituen. Nola ez, marrazten pasa-

tzen zuen egun osoa. Instagramen bi kontu zabaldu zituen; @btolea, pertsonala, eta @btoleaa, bere arteari eskainia. Pertsonalean argazki erotikoak igotzen hasi zen, arropa gutxirekin, modelo lanak egiten zituen, eta jarraitzaile pila bat hasi zitzaizkion iristen. Arteari eskainitako kontuan, hasieran ilustrazioak eta gustuko dituen pertsonaien bertsioak igotzen hasi zen, eta gero Eki pertsonaiaren inguruko komiki tirak. Bere argazkiek arrakasta lortzen zuten heinean, Ekik ere “like” gehiago erakartzen zituen. Azkenean, argialetxe bat bere lanean fijatu zen, eta “Eki en las nubes” komiki liburua argitaratzea lortu zuen. Kolore bi-ziak dituen LGTBQ+ tematikako altxor txiki bat. Sare sozialesi begira, gustatu zitzaion “trend” bat ikusi zuen: hizkuntza desberdinetan gauzak nola esaten diren

irakasten duten umorezko bideoak ziren, eta euskarazkorik ez zegoela konturatzerakoan, «ligatzeko esaldi bat» itzultzea erabaki zuen. Ligatzeko ez zen oso aproposa, baina, eta horrek sekulako efektua lortu zuen. Lehenik euskaraz esan zuen, eta euskaldunak ez direnek pentsatu zuten zerbait polita esaten ari zela. Itzulpena entzuterakoan, algara besterik ezin zuen sortu. Esaldi hura: «Arrautzak jango dizkizut». Birala egin zen. Orduetik, astero mota horretako umorezko bideoak grabatzen hasi zen, gerora eduki serioago eta didaktikoago batera pasatuz. Egun, euskara ardatzean duten bideoak argitaratzen ditu eta, orokorrean, oso feedback ona ari da jasotzen. Bere arte kontuak jarraitzaile askoz gehiago ditu orain, baina benetako igoera bere kontu pertsonalean nabaritu da. Lehen bideo hura argitaratu eta egun gutxira, jarraitzaileak biderkatu zitzaizkion, eta egun 121.000 ditu. «Niretzat influencer izatea ez da izan helburua, buruan nuen gogoeta bati irtenbidea emateko modua baizik. Bada-ki “Eki en las nubes” argialetxe batekin ateratzea sare sozialetan nuen eraginagatik izan dela posible», esan du argi. Horrez gain, beste amets bat bete zaio, aktore izatearena. Urte hasieran “La desmesura” antzezlanarekin estreinatu zuen Bartzelonan beste aktore batzuekin batera, apirilera arte larunbatero eskainiko dutena.

EUSKARAREKIKO ERREAKZIOAK

Olea asko harritzen du ikus- teak Euskal Herri- kanpo zenbat jende dagoen euskara ikasten dabilena, edo behintzat interesa piztu zaiena. «Aurrekoan ama batek idatzi- zidan esanez bere alabak es-

kolan Estatu espainoleko hizkuntza desberdinen inguruko lan bat egin behar zuela, eta euskararen inguruan zer-bait oroitzea asko kostatzen zitzaiola. Nire bideoak ikusi eta gero, erabaki zuten astean behin euskarazko hitz bat ikastea».


Hasieran politikoki oso zuzenak ez ziren esaldiak itzultzen hasi zen, baina arrakasta izan arren, ez zuen bere edukia horretan zentratzea nahi. Hori dela eta, beste mota batzuetako bideoak lantzen hasi zen. «Interesgarriagoa egiten zait hitzen jatorria ezagutzea, adibidez, nik ere ikasten dudalako. Ez naiz aditu bat, baina beti interesatu izan zait hizkuntzen inguruan ikastea. Euskaraz izateaz gain, informazio horri balio kulturala eranstea ere gustatzen zait», aipatu digu.

Hasieran naturalki egiten zuen, baina orain agenda bat dauka. Esaldi bat itzultzeak ez dio denbora kentzen, baina etimologian sartzen hasten bada, ikerketa bat egin behar du eta gero hori laburtu eta modu eraginkorrean nola transmititu pentsatu.

INFLUENCER IZATEAREN ARGILUNAK

Baina sare sozialetan dena ez da polita, eta psikologikoki gogorra izan daiteke kontrako mezuak jasotzea. Behin faxisten kontrako bideo bat argitaratu zuen, eta jasotako gorrotoaren ondorioz, beldurrez, ezabatu egin zuen bideoa. «Momentu horretan ez nuen jakin nola kudeatu. Bideo hori ezabatu dudan arren, berdin pentsatzen jarraitzen dut. Uste dut portaera batzuei ez zaiela sarbidea eman behar gure gizartean».

Mileiren inguruan gertatzen ari denak, adibidez, kezkatzen du, eta horren inguruko iri-



«Eki en las nubes» komikiko pertsonaia. Beñat OLEA

tziak zabaltu izan ditu: «Borrokatu egin beharko dugu atzerapausoak ez emateko, baina espero dut haratago ez joatea. Lehen jende askok beldurra zuen eskuin muturreko ideiak zabaltzeko; orain galtzen ari dira eta diskurtso hori indartzen ari da. Batzuetan atzera egin behar da berriz indarrez aurrera egiteko».

Oleak uste du gizartea gero eta polarizatuagoa dagoela, eta horregatik, badaki bideo bat igotzen duen bakoitzean erantzun onak eta txarrak jasoko dituela. «Horiek blokeatu egiten ditut eta aurrera, garrantzi handiagoa ez ematen saiatzen naiz, baina nekaga-

rria da. Badirudi zeure burua defendatzen ibili behar zarela norbaiti gustatzen ez zaion kultura baten parte zarelako», dio euskaltzaleak.

Olea, bere etxean, lagun edo familia artean, ez da konturatzen egiten duen kanpoan duen eraginaz. Horretaz ohartzen da kalera ateratzen denean. Sorpresaz hartu zuen Bilboko jaietan jarraitzaileak argazkiak ateratzera gerturatu zitzaizkionean. «Pixka bat saturatzen hasi nintzen, jendea etengabe etortzen zelako. Bat ez da kontziente horrenbeste jendera iristen dela kalean horrelako errealitatea ikusten duen arte», kontatu digu.

Behin, Bartzelonako kaleetatik zihoala, bi neska argentinarrek gelditu zuten eta esan zioten «tu eres el de los videos de euskera», baina Olea argi du bideoetan ikusten dena baino askoz gehiago dela. Izan ere, ezagutzen duten pertsonen jarreraren ez du desberdintasunik nabaritu. Jendaurrean lotsati xamarra zen txikitan, eta, orain muga hori gainditzeko lortu duen arren, ez da gehiegi aldatu. Ezagunen artean, berriz, beti izan da alaia, zaratatsua eta lagunkoia. «Bere garaian nire sexualitatea onartzen ez nuenez, kosta egin zitzaidan ni nor naizen jakitea, neure burua ezagu-

tzea. Hori estali beharra sentitzen nuenez, oso isila nintzen», kontatu du.

Ikastolan jasan behar izan zuen giroa ere ez zen lagungarria izan, bullying egiten ziotelako. Nik ez nuen ulertzen zergatik, mutilik zoragarriena bazen. Zorionez, batzuk kontra izan arren, beti izan zituen lagun ugari alde. Egun ez du gaizki pasarazi ziotenenganaiko gorrotorik sentitzen. «Bullying garaian nik neure burua aztertzen nuen eta pozik nengoen nintzenarekin, eta gaur ere zorionsua naiz naizen bezalakoa naizelako. Uste dut bakoitzak bere mugak eta gauza onak onartu behar dituela, eta horrekin bizitzen ikasi».

Lortutako arrakasta askoren helburua dela ikusita eta bere ametsa zein den galdetuta, guztiz argi du: «Artetik bizitzeko eta, orain bezala, sortzen dudanarekin zorionsu izaten jarraitzea eta disfrutatzea. Gustatzen ez zaidan zer-bait egiten badut, horrek esan nahiko du nire bidea galdu dudala. Niri gustatzen zaidana da sormenaren inguruan aritzea, berdin zait bideo, ilustrazio edo antzezlan. Nire saltsan sentitzen naiz eta gustatzen zaidana egiten dut. Ez dakit bihar aspertuko naizen», azpimarratu du.

Momentuz, irailean beste antzezlan batean lanean hasiko da, eta, Patreon mikromezenazgo plataformaren bidez, Ekiren istorioekin jarraituko du, liburuaren bigarren ale bat egiteko desiratzen. «Jarraitzaile bakoitzak euro bat inbertituko balu, horretatik bizi ahaliko nintzateke!», dio barrez, baina badaki egun jendearengana iristea oso zaila dela, eta horregatik pozik dago lortu duenarekin.

Nagore BELASTEGI MARTIN



Olatz ARBELAITZ GALLEGO, Usue MORI CARRASCAL, Ana ZELAIA JAUREGI
Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlariak, UPV/EHU

Emakume zientzialariak hazia ereiten, baita Informatika Fakultatean ere

Hiru helburu nagusirekin sortu zuten 2017an Emakumeak Zientzian ekimena, Donostia inguruko ikerketa zentroetako emakume gu-txi batzuek: emakume zientzialarien ikusgarritasuna handiagotzea, estereotipoak haustea eta bokazio zientifikoak sustatzea. Gerora, beste asko batu gara; “Hazia erein” lelopean izan berri den 2025eko ekitaldian, 35 erakunde aritu gara. Zientzia emakumeentzat toki goxoagoa egitea, ezin helburu hori ere burutik kendu...

UPV/EHUko Informatika fakultatean ekimen horretara 2021ean batu baginen ere, urteak generamatzen lorezaintzan: hazia erein, ureztatu, ongarritu eta ingurunea zaindu. Izan ere, “e-makumeak” taldea 2000. urtean sortu genuen, eta ordutik, hainbat ekimeni eman diogu bultzada fakultateko emakume askok eta gizonezko solte batzuek.

Bokazio zientifikoak sustatzeko asmoz, haur eta gazteei zuzendutako ekintzak egin ditugu. 2016-2018 urteetan kode-ordua eskaini genuen hainbat eskoletan, 10 urteko haurrek, neskek ere bai, programatzeko gai direla ikus zezaten, eta JolasMATIKA proiektuarekin informatika eta pentsaera konputazionala lehen hezkuntzako (LH) zein bigarren hezkuntzako (DBH) ikasleengana eramane ditugu hainbat urtetan. Emakumeak Zientzian ekimenaren barruan, bisitariak izan ditugu Informatika fakultatean: LHko ikasleak zenbaketa bitarra eta algoritmoak dibertigarriak izan daitezkeela ikastera etorri dira, eta DBHkoak gailu elektronikoetan kriptografia erabiliz informazioa babesteak duen garrantzia ulertzera eta mezuak zifratzera. Eskoletara ere joaten gara informatikari buruzko tailerrak ema-

tera; berriki, eta gutxi diren arren, gure fakultateko ikasle neskak tailer horiek ematera animatzen hasi zaizkigu.


Jarduera horietan guztietan, hezurretaraino sartuta ditugun estereotipoen buruzko hausnarketaxoa egiten dugu gaztetxoekin batera. Nolakoa da informatikaria? Zein arlotan egin dezake lan? Nabaria izan ohi da errealtatearen eta norbere ideien artean dagoen aldea: estereotipo okerrak gailentzen dira. Ba, ez... Informatikan dihardugunok ez gara denok gizonezko zuri betaurrekodunak!

Emakume zientzialarien ikusgarritasuna bultzatzen ere badihardugu: 2014tik hilabete oro GAUR8n teknologiar buruzko artikulua bat idazten dugu; euskarazko Wikipedian emakume informatikarien artikulua sortzeko saioak antolatzen ditugu; irratsaioetan parte hartzen dugu; Puntu.eus-ekin batera Gladys del Estal saria antolatu dugu azken 4 urteetan; etab.

Ekimen horiek bultzatzeak taldea egin du eta beste esparru batzuetan gertatzen ez den lankidetzara eta babe-

sa lortzea ekarri du. Gainera, “Emakumeak Zientzian”-i esker, beste jakintza-arloetako zientzialariek saretzeko aukera izan dugu, horrela, elkarri indarra emanez; genero arrakala txikitzeko ahaleginean ari diren emakumezkoak eta gizonezkoak ezagutzeko aukera aparta da. Komunitatea sortuz edota haziz doa.

Otsailaren 11 “Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna” da, zientzia nesken kontua ere badela aldarrikatzeko eguna. Handia izaten da telebistan, irratan, prentsa idatzian eta sare sozialetan izaten duen oihartzuna. Modan ere egon ginen, Janus Lesterrek 2023an sortu zuen “ERTZAK - Emakumeak Zientzian” abesti ederrari esker, bat harrapatu egiten baitu! Hala ere, urtean behin halako “kolpea” entzutea baino, hobe litzateke gure egunerokotasunean zientzia nesken kontua ere badela erakustea, naturaltasun hori haur eta gazteei eta haien ingurukoei transmititzea, horrela bakarrik lortuko baitugu ereindako haziak sustrai sendoak garatzea eta neskak ikasketa eta lanbide zientifikoetara gerturatzea. •



Emakumeak zientzian tokiak izan dezaten, lan handia egiten ari da azken urteetan. GETTY IMAGES

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Ricardo MARTIN. PHOTO CARTE FUNTSA. KUTXATEKA

1930EKO TOLOSAKO INAUTERIAK

1930eko otsailaren amaieran, euskal egunkariak inauterien etorrera iragartzen zuten. “La voz de su amo” gramofono eramangarrien publizitate-iragarkien artean, «inauterietan orkestra onenek interpretatutako dantzaldi modernoek gozatzea» agintzen zutenen artean, «festa momikoak» mozteko ahaleginaren aurkako protesta-gutunak ere bazeuden. Prentsaren arabera, agintariek argudiatzen zuten ospakizun horiek bulegoetako, industrietako eta tailerretako lana atzeratzen zutela. Ricardo Martinen irudian, Tolosako inauterietako jaiaren une bat ikus daiteke, 1930eko martxoaren 2an, igandea.

040 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



BANFF PARKEA

Mendi Harritsuen epitomea

hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan
GARArekin
doan

eta gainera...

VELOROUTE DU LA RHUNE
LAPURDIKO KOSTALDETIK
BARNEALDERA

EKUATORE GINEA
AFRIKA TROPIKALEKO
BELZTXO HURA...

NAWALGARH
HAVELIEN
HIRIA

EGIPTOKO MUSEO HANDIA
PROIEKTU
FARAONIKOA

PARAMARIBO
GUYANA EZEZAGUNETAKO
HIRI EDERRA

Begiradak Meteora, airean esekita **Elkarriketa** Garbiñe Arroyuelo eta Ander Arandia, tandemean

Egin planak 'Harri, Lurra, Huts': Chillida, Zabalaga baserrian **Munduan pasieran** Kaleko arte koloretsua, La Bocan; 'L' trenak, Chicagoko garraioen ikono; 'Gladiatoreak Britainia Handian' erakusketa; The Rockers gazte mugimendua, Kiberan; Terra Nova espedizioan, Antartikara bidean...

